



- **Bizi! mugimendua** Herriz herriko itzulia egingo dute gizarte jasangarriagoa lortzea xede
- **Fermin Erbiti** «Gezurra da Nafarroako kontu ekonomikoetan sekretuak daudenik»
- **Carme Junyent** «Ez ditut bateratu nahi independentziaren prozesua eta hizkuntzarena»
- **Klowna** Pertsonaia baino gehiago, bizitzari aurre egiteko jarrera
- **Nafarroa** PSNrik gabeko gobernu alternatiboaren aukerak giroa goritu du



EBOLA

Ingurumena eraldatzearen ordaina

argia 2015eko egutegia

Egunero etxe, elkarte eta eskoletako hormak edukiz jazteko

Historia gaiak

Txistak

Hitzokeiak

Esaldi esanguratsuak

Bertsoak

Etixerako gomendioak

Zientzia

Santuak

Euskal izendegia

Eguzkia, ilargia eta mareak

Argiako eskaintza bereziak

EGURREZKO
TAULA

50€

EGUTEGIA
opari

argia
egutegia
2015



EGUTEGIA

9€

argia

argia
egutegia
2015



BURNIZKO
EUSKARRIA

5€

ESKAERAK www.argia.eus/denda
denda@argia.eus
© 943 37 15 45



Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko azaroaren 2a, 2.435. zenbakia

ASTEKO GAIA

BIZI! MUGIMENDUA Posible ez ezik, beharrezkoa da.
MIKEL ASURMENDI / 4

PERTSONAIA

FERMIN ERBITI: «Agintariak ez badira gure adiskideak esan nahi du oso ongi egiten ari garela». REYES ILINTXETA / 9

GAIK

KALEA DENONA Zigor ekonomikoa, herritar deserosoak kontrolatzeko tresna. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 14

PREKARIETATEAREN AURPEGIAK Langileari presioa sartzeari da enpresaren filosofia. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 15

HILETA ZIBILAK Gero eta gehiagoren aukera, baina oraingoan minoritarioa. UNAI BREA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

ETA ORAIN ZER? GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 20

EUSKARA ETA INDEPENDENTZIA MIKEL IRIZAR / 22

IULEN MADARIAGAREN EGIA JOXE IRIARTE 'BIKILA' / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTA / 21

TXANDAN Erosketak. JOANES ETXEBARRIA / 22

BERTSO BERRIAK Hor datza *Egunkaria*.

PELLO ZUBIRIA KAMINO / 24

ERDIKO KAIERA

KLOWNA Ergel maitagarri hori. MYRIAM GARZIA / 25

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 30

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

TERMOMETROA

CARME JUNYENT: «Hizkuntza asko hitz egiten diren tokian zergatik eman behar diogu leku berezia gaztelaniari?».

ASSUMPCIÓ MARESMA, JORDI BADIA / 37

JESUS MONZON REPARAZ Frankismoaren kontrako eraso handiena gidatu zuen komunista nafarra.

KOLDO AZKUNE ETXABARRI / 40

NAFARROAKO HAUTESKUNDEEI BEGIRA Aldaketarako haizea inoiz baino indartsuagoa da. XABIER LETONA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Ebolaren mehatxua: sustriak ekologian, adarrak geopolitikan. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

ASTEKO GAIA

BIZI! MUGIMENDUA

Posible ez ezik, beharrezkoa da

Bizi! talde ekologistak topaketa eta koordinaketa bilkurak irailean egin zituen, Baionan. Urriaren 5ean, berriz, mugimenduaren ildoko Alternatibak Zokoa Eguna antolatu zuen, *Alternatiben herrixka* lelopean. Bizi!-ren lau kidek bestelako mundu jasangarriago batean bizi gaitezkeela kontatu digute. “Nolako bizimoldeak, halako bisaia!” azaldu dizkigute.

| MIKEL ASURMENDI |



DANI BLANCO

Xabier Harlouchet, Christian Detchart, Nicolas Goñi eta Elise Bancon-Dilet, Bizi! mugimenduko kideetako batzuk.

PLANETAKO KLIMA EGOERA LARRIARI buruzko goi-bilera izan zen Kopenhagen 2009 urtean. Bizi! mugimendua urte hartako ekainean eratu zen Baionan: 20 lagun ziren. Helburu bat hartu zuten Euskal Herriaren ikuspegitik: planetako klima egoera larriari alternatiba bat eskaintzea, baina justizia sozialaren behararekin uztartuz betiere. 300

kide dira 2014an. Bizi!-ren esperientziak hainbat talde eta ekimen-jarduera horizontal ahalbidetu ditu, ohiko hierarkiaren funtzionamenduaren kontrakarrean.

“Bizi!-k duela bost urte egin zuen lehen ekintza, sinbolikoa izan zen. Miarritzeko itsasertzeko Ama Birjinari ‘maskara eta tuboa’. jarri genizkion, arroka batean dago

Herriz herriko itzulia, 2015eko goi-bilerara heldu bidean

2015EKO EKAINAREN 5ean hasi eta irailaren 12an amaituko da Alternatibaren ekimen nagusia. Lehen urratsa iaz eman zuten, Baionan. *Tour* bat egingen dute Frantzia osoan: herrixken ekimena. 60 herritan jendearen formazioa sustatuko dute, klimaren arazoari ematen zaion politikaren alternatibak eskainiz. 2015eko abenduan Parisen izanen den Klimari Buruzko Konferentziari begira (COP21) 50 lagun ari dira antolatze lanetan.

Alternatiba Bizi!-ren sorreran dago. Kopenhageko nazioarteko goi-bileraren kariatara, 2009an Bizi!-ren ekintzek zentzu handia hartu zuten Ipar Euskal Herrian. Hemen ere, gasen berotegi-efektuaren parte handia sortzen dela ikusi zuten, lurraldearen beraren desorekaren eraginez sortu ere, hirigune eta landa arteko isolamendua tarteko, autoekiko dependentzia handia da. Efektu kaskar horiek bertan ere badirela ohartu ziren.

Ordura arte klimaren inguruan nazioartean indartu zen ekimena ahultzen hasi zen, baita desesperantza gisako bat zabaldu ere, Kopenhagen agintariek neurriak hartuko zituztela espero baitzen. Eta orainokoa ez dituzte soluziobide eraginkorrak mahaigainera-

tu. Nazioartean mugimendua ahulduz joan zen, alabaina, Bizi!-k bere ildoan jarraitu zuen, baita handitu eta zabaldu ere. Dena den, klimaren inguruko sare soziala ez da guztiz desegin Frantzian, justizia sozialaren aldeko ekimenekin uztartua baitago. Bizi!-k beti atxiki ditu harremanak nazioartean. Europako hego-ko eta iparreko mugimenduekin harremana atxiki du. Les amis de la terre edo ATTACen lagunak ekimenera hurbiltzea lortu dute. Estatuko mugen inguruko beste herrietan ere izanen da herrixken ekimena. Adibidez, Donostia itzuliaren ibilbidean dago. Ondoren, 2015eko urriaren 24an, Zokoa Egunaren antzekoa egin nahi dute Bilbon. Bizi!-ren ideiak kontuan hartu dituzte han-hemenka. 12.000 lagun behar dira eta horiek biltzeko gai direla erakusten ari dira.

Europako agintariek erabaki garrantzitsuak hartu behar dituzte COP21ean. Frantziako Gobernuaren egitasmoak goi-bilera horretan trenkatuko dira. Alternatibak erakundeetan eragin nahi du. Erakundeetako arduradunek haien proposamenak aintzat hartzea nahi dute. Bizi!-k hainbat bidetan garatu du ekimena dagoe-neko, baita tokiko herriko etxeetan ere. “Bizi!-ren ereduari atxiki!” leloa errotuta dago Ipar Euskal Herrian.

estatua. Jende askori parodia zozoa iruditu zitzaion, alarmista”, dioskute solaskideek. Alta bada, bost urte iragan ondoren, Estatuko instituzioek milaka euro gastatu behar izan dute Hendaia, Baiona edota Miarritzeko itsasbazterrean. Itsas ekaitzek egundaino egin ez zituzten desmasiak ezagutu ditugu: “Anormaltasun hori normaltasun bilakatzeko ari da, klimatologia aldatuaren eraginez”. Miarritzeko itsasertzeko udal igerilekua urpean geratu zen. Baionako Herriko Etxeak ibaietako zubien zuta-beak berregin behar izan ditu, Hendaia-koak itsas bulebarra berritu...

Uholdeak frekuentzia eta gradu handiagokoak bilakatu dira, gero eta sarriago gertatzen dira. Herriko etxeetako diruzaintzak ezin die aurre egin gastuei. Aurrekontuak ezin dira egun batetik bestera inprobisatu. Gertakari kontrolaezin horiek lehen ikusten ez genituen beste kontzeptuak azaleratu dituzte. “Beste mundu bat posible da!” eslogan xarmagarriak beste kontzeptu bat ekarri du: “Posible ez ezik beharrezkoa da”. Munduak eta planetak oro har, eutsi ezinezko egoera bizi du. Egoerari aurrea hartu behar zaio, baina nola?: “Prebenituz, aldeztu aurretik ekinez. Kalteen

ondorioak gutxieteko erabili ditugun hitz eta ohitura txarrak aldatu behar ditugu”. Bizi!-ko kideek orain bost urte aurreikusten zutena bizitzen ari gara orain. Jendea ohartu da klima egoera larriaren ondorioak larrutan pairatu ez ezik, dirutan ere pagatu behar dituela. Adibidez, Bizi!-ren eskutiko Alternatiba ekimenaren bidez beste mundu hori

egingarria izateaz gain erakargarria dela ikusten ari gara. “Ez da kobazuloetara itzultzea ere”, iragan berrian inork erran zuen bezala.

Pedagogia landu beharra

Kontua ez da iraganera itzultzea, eguneroko bizitza beste molde batez antolatzea baizik. Gure bitartekoen erabilpena lehenestea, jendeen ideien trukatzea, bakoitzak berea atxiki,

baina onurak partekatzea. Adibiderako, ingurumari ekologikoa atxikitzen badugu eta denboraren erabilpena ongi taxutu, gure onurak handitu ditzakegu. Hamaika bide urratu dira orain arte, baina denak antzu samarrak. Berriak saiatzea beharrezkoa da.

Adibideak adibide, Bizi!-ren filosofia hone-lu ulertu dugu guk. Elise Bancon-Dilet da mintzo: “Inork pentsatzen badu 2008an zabaldu zen krisiak lagundu duela bide berriak urra-

Uholdeak frekuentzia eta gradu handiagokoak bilakatu dira, eta gero eta sarriago gertatzen dira. Herriko etxeetako aurrekontuek ezin die aurre egin itsasertzean izandako desmasien gastuei

BIZI! MUGIMENDUA



BIZI!-K UTZIAK



Antolatzaileek 1.000 pertsona hurbiltzea espero zuten eta 3.000 inguru hurbildu ziren Zokoa Egunera.

tzen, tronpatzen da. Krisi inportanteena ekonomikoa dela ukatu gabe, krisiak krisi, guk beste mundu alaiagoa proposatzen dugu. Posible da zoriontsuagoa izatea diru gutxiagorekin biziz". Areago, jendeak hartu behar duen bide horren nahia sentitu behar du. Beharra besterik ez badauka, ez da nahikoa.

Christian Detcharterenak dira hitzok:

"Alaba baten aita naiz. Bizi!kide bilakatu da berriki. Zaila eta eneagarria zait alabari beti esatea 'mundua gaizki doa, ez dago etorkizunik'. Gurasoak mundua aldarazteko lanean aritzeak munduaren antolatzeko beste ikuspegia eskaini diezaieke seme-alabei. "Gure etxean alabak ikusten du ez garela geldirik, beharrak eta nahiak pusaturik, geuk hartzen dugula etorkizuna gure esku".

Pedagogia landu behar da. "Beharra, nahia eta plazera". Bizi!-ko kideek hitz horiek lehenesten dituzte. Zokoa Egunean –Alternatiben herrixken ekimenean– termometro handi bat ezarri zuten, planetako tenperatura goiti doala agerian, mundua barnebiltzen duen geruza berotzen ari dela erakutsiz.

"Prebenituz, alde z aurretik ekinez. Kalteen ondorioak gutxiesteko izan ditugun ohitura txarrak aldatu beharko ditugu", esan digute Bizi!-ko ekologistok

Katastrofismoa amiñia erabili dute nolabait: "Bai, baina zer pentsatuko dute gure haurrek?", erran genion gure buruari. Haatik, hori eszenaratzeko *Kadiren joko*a erabili zuten. Kadira kopurua gutxitu ahala, termometroaren tenperatura igotzen zen eta kadira bakoitza areago berotzen. Azken jokalaria esertzeko kadira izan bazuen, baina ezin izan zuen eseri. Musikak lagunduriko joko pedagogiko irrigarri horretan haurrak kontent jolastu ziren: "Gurasook seme-alabei erakutsi diegu dena ez dela xahu, ez dela galdua. Kadirak erre ditugu zerbaiten aldatzeko, joko horiek molde bizian eta bizitzen lantzen ditugu".

Jendartearen gehiengoak beste modu batez pentsatu ez ezik, bestela jokatu eta jardun izan du orain arte. Bizi!-n ari diren ingurukoek horrela adierazten zieten mugimenduaren hastapean: "Bo, bo, bo, ez da hainbeste! Teknologia dena edo ia dena konponduko du. Izan gaitezen errealistak! Alabaina, anitzek ikuspegia aldatu dute. Eta guri ere beste ikuspegiz so egiten digute", dio Christian Detchartek.

www.bertsozale.eus/xilaba

Aiziritze

Herriko gelan
Azaroaren 2an, 17:00etan

Aitor Servier	Egoitz Zelaia	Eneritz Zabaleta
Maddi Sarasua	Patxi Iriart	Ramuntxo Christy



Bizi!-k hezkuntza hobetu beharra aldarrikatu du, helduen eta haurren arteko komunikazioa hobetu daitekeela erakutsiz.

Xabier Harlouchetek honela irudikatu du munduaren egungo egoera: “Orain arteko ustea ‘mundua pastela da eta hobeki behar dugu partekatu’ izan da. Ustea eta leloa ere bada batzuetarako. Haatik, iritsi da ordua pastelaren errezeta aldatzeko, pastela pozoitsu baitago. Orain arte, afera partekatze kontua zelakoan geunden edo zegoen jendartearen parte handiena, baina pastela gero eta handiago da, eta pozoitsu da”.

Bizi!-ren nahia planetako klima egoera larriaren aitzinean alternatiba bat eskaintzea da, baina hori ez da gauzagarria baldin eta justizia soziala gauzatzen ez bada. Nicolas Goñiren gogoetak baliagarriak zaizkigu xede horiek ulertze bidean: “Guk diruaren jabetzaren desberdintasunak azpimarratzen ditugu, baita salatu ere. Baina krisialdi hau ez da banku batzuen porrotaren ondorioa, edota kredituaren krisia, baizik eta diru transferentzia egin delako diru gutxi dutenen eskuetatik askoz gehiago zuten eta dutenen eskuetara edo kutxetara”. Hori salatzeko, Bizi!-k ekintza berezia egin zuen Baionako auto kontzesionario baten aitzinean. Izan

Kontsumoaren ondorioz frustrazioa hedatzen doa, kontsumoak elikatzen baitu frustrazioa

ere, 2012an, Ferrari auto ekoizleak bere historiako irabazi handiena egin zueneko txostena ezagutarazi zen. Peugeot eta Renault enpresek historiako krisi handiena pairatzen zutela zioen txostenak: “Hots, aberatsek erosteko ahalmen gehiago dute krisia leher-tu zenean baino. Jende xeheok, gehienok, diru gutxi dugunok, galdu dugu erosteko ahalmena”.

Bizi!-k dioenez, krisia ez da soilik energetikoa, krisia soziala da, jendarte ereduaren krisia. Ezberdintasunek eragin izugarriak dituzte sozialki, eta ondorioz, aldi berean eta estrukturalki, ekologikoki ere bai. Mugimenduak bi gaiak uztatzen ditu eta horiei konponbideak ematen saiatzen dira bere kideak: “Diagnosia horrela ulertuz gero, agian planeta biziberritzeko errezetak lortuko ditugu. Alternatiba ekimenak hori bilatzen du”.

Alternatiba Zokoa Egunean

Zokoa Eguna urriaren 5ean plazaratu zen, Herrixka ekimenen barnean. Krisi sozialari eta ekologikoari aurre egitea eta bestelako mundu bat posible dela bertatik bertara era-

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA BIZIA

BIZI! MUGIMENDUA

kutsi zuten, adibide bizien bitartez ezagutzera eman ere: Kontsumoa, Zero Zabor, Errepideari alternatiba eta Hirigintza osatzen dituzten taldeen ardura pean. Bizi!-k sustatzen dituen gaitako batzuk baino ez dira, hau da, alternatibak landuak dira, udalerrien eguneroko bizitzan garatuak.

Antolatzaileek 1.000 pertsona hurbiltzea igurikatzen zuten eta 3.000 inguru bildu zen. Gaien edukiarekiko jakin-nahi bizia izan zen bisitarien aldetik, jendea ez zen bakarrik festa egitera hurbildu. Mintzalekuak bete ziren. Arazo diren hainbat gairi buruzko alternatibak jaso zituzten mintzaldien bidez. Ekimen praktikoak landu ziren esparru guztietan. Publiko anitza egon zen. Ez soilik betiko “konbentzituak”, ohituraz eta atxikimenduz hurbildu ohi direnak. Kutsu militante-ekologistarik gabeko jende asko agertu zen interesatu, galdezka. Helduak eta haurrak, tokiko jendea eta kanpokoak.

Nicolas Goñik kontatu digunez –Alternatibako arduradun nagusietako bat–, gai guztiak landu ezinean, Hego Lapurdiko errealitateari egokitu zituzten gaiak, bost esparru tematikotan. 1) Klima eta itsas ingurumena –klima da Alternatibaren gai komuna–. Itsas bazterreko problematika ikusi eta agertarazi zuten: hala nola, gure bizimoldearen ondorioz areagotuko diren eragin eta efektu ezkorrak. Gaur egungo ekaizten ondorioak are larriagoak izanen dira etorkizunean. Klima aldaketak segitzen badu, gure itsasertzaren egoera larria kontrolaezin bihurtu daiteke. 2) Hego Lapurdi egituratzen duten beste bi elementuak garraioak eta hirigintza/etxebizitza dira. Hirigintza gero eta hedatuago denez, energia asko erretzen dute tokikoek, bai etxeak

eraikitzekeo bai mantentzeko. Urbanismo eredu horrek autoaren menpekotasun izugarria sorrarazi du, autoen jabe kopurua gero eta handiagoa da. Auzune gehiago sortzen ari dira, jendea bakanduz eta hauen harremanak gutxituz.

Pertsonen arteko harreman gutxitzeak beste ondorio bat ekarri du: kontsumoa handitzea. Jendearen arteko harremanak sarriagoak direnean, ongizatearen jendartea hobetzen da. Harremanek jendeak elkarri materialak modu informalean mailegatzea edo trukatzeko errazten dute. Urbanismo barreiatu horretan harremanak desagertzen joan dira. Alternatibak garraioa antolatzeko eta etxeguneak eraikitzekeo beste eredu bat proposatu du. 3) Beste esparru batzuk modu orokorrean landu zituzten: kontsumoa haurren munduari lotua. Ara-

zuen alternatiba belaunaldi berriei lotuta ikusten dute, egunero landu beharreko gaia da. Alternatibak haurrekiko harremanetan eta jolasguneetan molde bereziak landu daitezkeela erakutsi du: jolas komunak sustatuz, elkarrekin zerbait egiten, jokoak landuz, egurrezko jostailuak erabiliz, ez tableten edo smartphonen bitartez soilik. Hain zuzen ere, pantailarik gabeko iniziatibak landu dituzte, eta ez bakarrik haurrei begira, baita helduei begira ere. Erakutsi dute badagoela ongi bizitzea pantailari itsatsirik egon gabe. Hezkuntza hobetu daitekeela erakutsiz. Hitz bitan: jendearen arteko harremana hobetzeko eta frustraziorik ez sortzeko. Kontsumoaren ondorioz frustrazioa hedatzen baitoa, kontsumoak elikatzen baitu frustrazioa. ■

Pertsonen arteko harreman gutxitzeak beste ondorio bat ekarri du: kontsumoa handitzea. Jendearen arteko harremanak sarriagoak direnean, ongizatearen jendartea hobetzen da



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1 • 20003 Donostia (Gipuzkoa) • Tel: 943 44 00 99
aquariumss@aquariumss.com • www.aquariumss.com



«Agintariak ez badira gure adiskideak esan nahi du oso ongi egiten ari garela»

Nafarroako Kontuen Ganberako komunikazio arduraduna edo diru publikoaren kudeaketa okerraren trapu zikinak bistaratzen dituen kazetaria.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Aitaren familia Ultzamakoa?

Bai. Ama Iruñekoa eta aita Alkotzen sortua, baina 13 urterekin Iruñera etorri zen aitatzik gerra garaian zabaldutako hotelean lan egitera. Kontrabandistak ziren eta arazoak izan zituzten aitatziki, bederatzi seme-alaben aita zela, atxilotu eta lau urtez kartzelara eraman zutenean Iruñean eta A Coruñan. 18 urterekin aitak, beste anai-arreba batzuekin, oinetako denda bat ireki zuen Iruñean, gaur egun Pello anaiak daramana. Gaztetxo nintzelarik han hasi nintzen ni lanean larunbatetan eta mer-

kealdietan. Horri esker badakit zer den bezeroen aurrean aritzea eta aita zer saltzaile ona den. Kalitatearen aldeko apustua egin zuten hasieratik eta, egia esan, konpetentzia handirik ez zuten izan. Bezero euskaldun asko etortzen ziren, larunbatetan batez ere, eta hainbat denda eta tabernatan biltzen ziren. Gaur merkataritza-gune handietara jotzen dute gehienbat, baina garai hartan Alde Zaharrean eta zabalgunean erosketak egin, bazkaldu eta gero arratsaldean, batzuetan, frontoira joaten ziren. Haienezako egun pasa ederra izaten zen.



Euskara etxean ikasi zenuen?

Aita euskalduna da, baina etxean ez genuen ikasi. Abesti batzuk, zenbait hitz... besterik ez. Gurasoak saiatu ziren anaia eta biok hasi berria zen San Fermin ikastolan sartzen, baina txikientzako taldea besterik ez zutenez, 5 urteko anaia ezin hartu, horregatik gurasoek erabaki zuten biok La Salleko ikastetxera eramatea. Haiek bazekiten gu familia euskaldunekoak ginela eta fraide batzuek beti euskaraz egiten ziguten anaia eta bioi. Garai hartan, beste eskola askotan bezala, euskal kantak irakasten ziren, adibidez. Nik han *Bautista Basterretxe* ikasi nuen. Penagarria da ikustea gaur egun nola batzuei euskara erabat arrotza egiten zaien. Orduan euskara gurea den zerbaite zen. 13 urterekin Maristetara aldatu ginen La Salletarrek eskola eta orubea saldu zituztelako eta han oso bestelako giroa aurkitu genuen. Gero, gaztetan, bete betean harrapatu gintuen Francoren heriotzak eta ondorengo boom politikoak. Piztu zen abertzaletasuna oso erakargarria zen: garai berria, bizi berria... Orduan konturatu nintzen euskararik gabeko abertzaletasunak ez duela zentzurik. Eta beste alde batetik ere, pentsatu nuen gure familian betidanik hitz egin dela euskara gaur arte. Nik ez nuen etenaren erruduna izan nahi, beraz, anaiarekin batera, euskaltegian hasi ginen gogoz. Handik bi urte eta erdira azterketara aurkeztu eta EGA eskuratu nuen.

Eta berehala hasi zinen euskarazko kazetari-tzan lanean.

Unibertsitatean bigarren mailan ari nintzela, *Navarra Hoy* egunkarian hasi nintzen. Han egin nituen bi urte haietan kazetaritza deskribitu nuen. Oso gustura aritu nintzen José Antonio Montón zuzendariarekin eta oso eskola ona izan zen niretzat. Hurrengo urtean Radio Nacionalean euskarazko saioak egiteko kazetari bat behar zutela esan zuten. Ordura arte Kike Diez de Ulzurrun izan zen bertako kazetaria baina urte horretan, 88an, utzi egin zuen buru-belarri Euskalerrira Irratia sortu berrian sartzeko. Horrela hasi nintzen irradian. Ikaratuta eta bakarrik. Albistegien laburpenak eta astean behingo saio bat egiten nituen hasieran eta bi orduko saioa egunero ondoren. Gauza duinak egiten saiatu nintzen, batzuetan Euskalerrira Irratian zebilen jendearengandik ikasiz eta haien kontaktuak erabiliz askotan. Agian erronka handiegia zen niretzat garai hartan, baina beharrak asko erakusten du. Irratiko zuzendaria telebistako arduradun izendatu zutenean proposatu nion saio bat egitea. Oso interesgarria izan zen medio hori ere ezagutzea eta modu honetara telebista espainiarrak hemen egin duen euskarazko lehen saioa eta bakarra egin genuen.

Gorrotoa

“Oraingo eskuinaren euskararekiko gorrotoa nahiko kontu berria da. Lehen agian ez zuten gauza handirik eginen euskararen alde, baina, bederen, kontra ere ez. Jose Mari Satrustegik duela 25 bat urte elkarrizketa batean esaten zidan Amadeo Marcoren diputazioa euskaltzaleagoa zela ordukoa (Urralburu sozialistarena) baino”.

Eta 1993an Kontuen Ganberan sartu zinen. Nolakoa izan zen komunikazio instituzionalerako jauzia?

Mariano Zufiak martxan jarri zuen erakunde hau 1980an. Ondoren presidente moduan etorri zen Patxi Tuñónen helburuetako bat zen Kontuen Ganberaren lana ezagutaraztea. Komunikazio arloa zaindu nahi zuten eta horretarako ordu batzuetarako kazetari bat kontratatzea erabaki zuten. Ni *freelance* moduan aritzen nintzen hainbat tokitan, hor sartzeko aukera ikusi nuenean. Handik gutxira oposaketak deitu zituzten postu hori betetzeko eta neuk lortu nuen. Patxi Tuñónek euskararen aldeko apustua egin zuen. Erakutsi nahi zuen erakunde hau nafarra dela eta horretarako euskara erabiltzea funtsezkoa dela. Gobernuak berak hartu ez zuen erabakia hartu genuen guk. Edozein liburu, prentsa oharra, bisitak, txostenak... Dena elebitan egiten da.

Administrazioaren trapu zaharrak ateratzen dituzue eta modu ulergarrian gainera. Diru publikoaren kudeatzaileen buruko mina zarete? Ez dakit. Gaur egungo Kontuen Ganberak bi eginkizun nagusi ditu: Nafarroako diru publikoa fiskalizatzea eta Parlamentuari aholku ematea ekonomi eta finantza gaietan. Gure planteamendua hasieratik izan da nafarrek eskubide osoa dutela Gobernuak eta erakunde publiko guztiek diru publikoa nola erabiltzen duten jakiteko. Erronka nagusietako bat da informazio tekniko hori guztia itzultzea eta komunikabideei ematea, haien bitartez hiritar orok, ahal den hobeekin, uler dezan. Administrazioak egiten dituen testuak ulergarriak ez badira, gaizki. Mezua argi idatzi behar da, eta horrek ez du esan nahi zehaztasun teknikoa galtzen denik. Gardentasun administratiboa demokraziaren zutabeetako bat da, baina kultura honetan, Espainiatik datorkigun kultura honetan, defizit handia dago. Han antolatu zen kontrol sistemak, adi-

NORTASUN AGIRIA

Fermin Erbiti Zabaltza. Iruñean sortua (1964ko abenduaren 15ean). Kazetaria. *Navarra Hoy* egunkarian hasi zen lanean. Ondoren, Iruñeko RNE eta Telenavarran orduan egiten zen euskarazko programazioaren arduraduna izan zen. Duela hogeita bat urtetik Nafarroako Kontuen Ganberako komunikazio arduraduna da. Bost liburu idatzi ditu: *Los sanfermines = Sanfermina; Encierros en blanco y negro; Pamplona: historias, lugares y gente; Hiru koaderno txiki* (Juan Zelaia saiakera saria 2010ean) eta *Kontuen ganbera. Iruñeko etxe zaharrenaren eta ingurukoaren istorioa* liburua bi bertsiotan, euskaraz eta gaztelaniaz (2013).





bidez, ezin du emaitzarik sortu. Egin zen kontu epaitegi bat deus ez egiteko, hain zuzen ere. Alderdi politikoen arteko negoziatio bat egiten dute bakoitzak bere ordezkariak izenda ditzan. Eta Gasteizen berdin, Espainiako eredia kopiaut zutelako. Horrek ez du zentzurik, gizarteak baduelako eskubidea kontuen berri jasotzeko.

Hemen Nafarroan zergatik da desberdina?

Desberdina da ez nafarrok besteak baino argiagoak garelako edo holako zerbait, baizik eta Kontuen Ganberarako beste eredu bat hartu zelako. 1980an Parlamentuak erakundea berriro martxan jartzeko erabakia hartu zuen. Gurea izan zen fiskalizazio erakundea sortu zuen lehen autonomia-erkidegoa eta epaitegi zaharraren izen bera hartu zuen. Hau abian jartzerakoan ibilbide demokratiko luzeko Finlandia, Kanada eta Erresuma Batua bezalako herrialdeei begira jarri ziren. Hango eredia kopiaut zuten eta horri esker gaude orain gauden bezala. Hemen dauden kide guztiak auditore eta teknikariak dira, eta onak gainera, oposaketen bidez sartzen direnak. Berdin zaie zein alderdi dagoen agintean eta inor ezin zaie joan esanez txosten honetatik kendu lerro hau edo jarri beste hura. Hemen lan egin daiteke. Hori da sekretu bakarra. Besteek nahiago izan zuten erakunde erabat politizatua sortu, eta horrek ezin du fruiturik eman.

Nafarroako egoera ekonomikoa nola ikusten duzu?

Gezurra da hemengo kontuetan sekretuak daudenik. Hori esan zuen PSNk UPNk Roberto Jiménez Gobernutik bota zuenean, baina ez da egia. Hemen kontuak argi daude, beste inon baino garbiago. Gobernuarenak eta udalenak

AZKEN HITZA

Hedabideak

Hiru koaderno txiki, Juan Zelaia saiakera saria 2010ean: "Liburu honetako atal batean komunikazioaren inguruko hausnarketa egin dut. Hedabideek eta Kontuen Ganberak badute lotura bat: agintarien gezurrak eta kudeaketa txarrak salatzen gaude. Kritikotasuna kazetarion zeregin nagusietakoa da, baina tamalez badakigu askotan oso zaila dela. Nork idatziko du gaur egun Corte Ingles-en aurka? Euskalerrria Irratiak edo ARGIAk, agian, merkataritza-gunearen publizitaterik ez dutelako jasotzen. Kazetarien egoerak ere kezkatzen nau. Hala ere, pentsatzen dut kazetaritza guztiz beharrezkoa dela mundu honetan eta demokraziaren heldutasuna ere komunikabideen egoeraren arabera neurtzen dela. Erronka handia dugu, bereziki Nafarroan, euskarazko komunikabideak indartzeko. Euskaldunok behar ditugu hedabideak eta onartezina da egungo egoera. UPNkoek ere badakite funtsezkoak direla eta horregatik jarraitzen dugu ETB modu digitalean ikusi gabe edo segitzen du Euskalerrria Irratiak litzentziarik gabe".

ere bai. Zer gertatzen da? Ba hemen 3.000 milioiko zorra dugula, azken urteotan pilatutakoa eta Nafarroa oso egoera delikatuari jartzen duena. Nik esanen nuke azken aldi honetan oso kudeaketa txarra egin dela, dirua oso erraz xahutuz. Eginiko inbertsio batzuek ez dute ez buru ez hankarik. Gure gomendioa behin eta berriro izan da inbertsioak egin baino lehen ongi aztertzeak proiektuen finantziazio bideak. Horren adibide argia Gobernuaren Arena kiroldegia da. Bukatzear dago, baina ez dute amaitu nahi ezin diotelako aurre egin mantentze kostuari. Beste kontu larri batzuk izan dira Los Arcosko zirkuitua, Iberdrolaren akzioen erosketa edo Parquenasari, Senda Viva kudeatzen duen enpresari, 55 milio euro ematea. Hor Nafarroako Gobernuak sartu zen inbertitzaile pribatu batzuekin eta haiek ikusi zutenean ez zeukala etorkizunik alde egin zuten, Sodena enpresa publikoa bakarrik utziz zuloa pagatzeko. Hori gertatu da eta hori zuzendu beharra dago. Gobernu batek ezin ditu halako erabakiak hartu kontseilari bati bururatu zaiolako hori egitea. Diru publikoa, denon dirua, ari bada kudeatzen, bestelako formalitatea eskatu behar zaio gobernu bati. Honetan Nafarroako Gobernuak nabarmen egin du huts azken urte hauetan.

Osasunbidean ere txosten argigarria atera berri duzue.

Politikariei eskatu behar zaie, lehenbizi, ez sartzeko ongi funtzionatzen duten arloetan.

Hori oso garrantzitsua da. Horren adibide bat hemengo erietxeen janari zerbitzuarekin gertatu dena da. Ospe handikoa zen, baina erabaki okerrak hartu dituzte. Sukaldeak batu behar ziren eta janaria prestatzeko sistema “hotza” hautatzeak dirua aurreztear ekar zezakeela ikusi zen: janaria prestatu ahala banatu beharrean, egun batez egin eta hotzean gorde hurrengo egunetan emateko. Baina hor koska dago egiteko moduan: zerbitzua pribatizatuz edo etxeko langileekin. Duela bi urte ohartarazi genion Osasunbideari alternatiba guztiak ongi aztertu behar zituela. Baina haiek konparaketa gaizki egin zuten eta pribatizatzea hautatu zuten. Hori ez da serioa. Gure txostenaren ondorio nagusia izan da sukaldeak batuta, sistema berriarekin baino etxeko langileekin egin izanez gero, askoz merkeago aterako zela (670.000 euro urtean) eta gainera kalitate hobekoa. Hemen izan genuen presidente bat kexatzen zen zenbait ekitalditara joaten zenean batzuek ez zutela agurtu ere egiten. Baina gu ez gaude hemen adiskideak egiteko, batez ere agintarien artean. Agintariak ez badira gure adiskideak esan nahi du oso ongi egiten ari garela.

Zure lana, hala ere, ez da mugatzen kontuen ikuskaritzara.

Ni oso funtzionarioa ez naiz eta beti saiatu izan naiz beste toki batzuetan aritzen aldi berean. Fiskalizazio txostenez gain, mundura atera behar da eta ikusi zer dagoen. Horregatik kolaborazioak egin izan ditut eta egiten ditut zenbait hedabidetan (Euskalerrria Irratian, Euskadi Irratian, ETBn *Azpimarra* saioan, hemen ARGIAN...), horregatik aritu nintzen Ikastolen Federazioan presidente eta horregatik dut gustuko liburuak idaztea.

Kontuen ganbera. Iruñeko etxe zaharrenaren eta inguruko istorioak zure azken liburua idazteko dokumentazio lan handia egin duzu

Penagarri

“Euskararen erabileran gu eredugarriak suertatzea, Kontuen Ganbera alegia, penagarria dela iruditzen zait. Egoera penagarria dela erakusten du, guk, azken finean, dauden errealitatea eta legedia errespetatu besterik ez dugulako egiten”.

Nafarroako Artxibo Nagusian, eta kaleko bizi-lagunei galdezka aritu zara. Zer ikasi duzu?

Ezagutzen ez nituen kontu asko aurkitu ditut Ansoleaga kaleko etxe honen inguruan. Iruñean gelditzen den gotiko zibileko eredu bakarra da. Adituek diotenez, XIII. mendearen bukaeran eraiki zen eta 1525etik Kontuen Ganberaren egoitza izan zen. Beste alde batetik istorio oso interesgarriak gordetzen ditu eraikin honek. Kontuen Ganberaren eta Diru-etxearen egoitza izateaz gain, beste erakunde asko pasatu dira bertatik: Monumentuen Batzordea, Euskara Elkargoa, lehenbiziko museoa, Vianako Printzea erakundea, Nafarroako Unibertsitatea, Foruzaintza eta baita Iruñeko lehenengo euskaltegia ere. Izan ere, 1951. urtean diputazioak martxan jarri zuen Euskararen Akademia etxe honetan, eta urtebetez 33 ikasle aritu ziren. Hurrengo urtean ikasle kopurua handitu egin zen, eta eskolak lekuz aldatu behar izan zituzten. Dena den, 1970. urtera arte iraun zuen akademiak, eta, denora, 300 ikasle aritu ziren. 1974an sortutako Arturo Campion euskaltegiak hartu zion lekukoa. Istorio politikak eta gauza asko pentsarazten dutenak, esate baterako oraingo eskuinaren euskararekiko gorrotoa nahiko kontu berria dela. 80ko hamarkadan *Diario de Navarra* idazten zuten *Nafarroa* Euskal Herriko lehena dela. Euzkadi ez, baina Euskal Herria noski. Orain, aldiz, Euskal Herriari “entelekia” esaten diote. Europatik, unibertsitate askotatik etortzen dira eta harrituta gelditzen dira euskarari eginiko erasoak ikustean. Penagarria da UPNren jarrera, PSOEn laguntzaz. Ez dakit inoiz aldeko haizerik ezagutuko ote dugun, baina behintzat kontrako haize hau noizbait desgertuko dela uste eta espero dut.

Hemengo euskaltzaleek beti kemena erakutsi dute, baina nik gutxieneko kohesioa eskatuko nuke aurrera egiteko. ■



Txipiroiak plantxan

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Zigor ekonomikoa, herritar deserosoak kontrolatzeko tresna

Herritarrak desmobilizatu eta isilarazteko asmoz, manifestazioetan eta protesta ekintzetan parte hartzen dutenak isun ekonomikoen bidez itotzea da botere publikoak Nafarroan orokortu duen estrategia. Hala salatu du Kalea Denona kolektiboak eta horri aurre nola egin eztabaidatzeko bilera antolatu du, azaroaren 15ean.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

ABORTATZEKO eskubidearen, presoak gerturatzearen edo osasun publikoaren alde manifestatzeagatik, greba orokorretan edo ikasleen bizikleta martxan parte hartzeagatik, pankartak jartzeagatik, pintadak egiteagatik, AHTren aurkako desobedientzia ekintzengatik, norbait etxetik kaleratua izan ez dadin mobilizatzeagatik... azken bi urteotan kolektibo eta herritar askori 300 eta 8.000 euro arteko zigor administratiboa jarri die foru erkidegoan Espainiak duen ordezkariak (neurri txikiagoan, baita Nafarroako Gobernuak eta hainbat udalek ere). Kalea Denona plataforma prestatzen ari den txostenaren arabera, denera 250.000 euro ordaindu behar dituzte isunetan, baina oraindik jende askoren informazioa gehitzea falta dela gaineratu digute kolektiboko kideek.

Zuk ere antzeko isunik jaso baduzu edo halako egoeratan zer egin daitekeen jakin nahi baduzu, azaroaren 15ean, goizeko 10etan informazioa jaso, partekatu eta eraso hauei nola erantzun eztabaidatzeko bilera egingo dute Iruñeko Alegria peñan.

“Egungo sistema, agintariak edo euren erabakiak zalantzan jartzea helburu duen edozein salaketa-ekintzak zigor ekonomiko serioa jaso dezake ordainetan. Isunen bidez errepresio ikusezinagoa bilatzen dute, eragile sozialak korapilo burokratikoetan katigatu eta ekonomikoki itoko dituenak —diote kolektibotik—. Jardun antidemokratiko horrek ez du soilik adierazpen askatasunerako edo



“Isunen bidez errepresio ikusezinagoa bilatzen dute, eragile sozialak korapilo burokratikoetan katigatu eta ekonomikoki itoko dituenak”, diote Kalea Denona kolektibotik.

manifestatzeko eskubideen aurka egiten, baliabide gutxien dituztenen eta baztertuenen aurka ere jotzen du”. Sumin eta haserre dagoen gizartea kontrolatzeko modua dela uste dute, errepresio burokratikoak erabiltzen dutela, sotila, isila, baina errepresioa azken finean. Kontuan hartu behar baita —Estrasburgok berak berriki berretsi duenez— herritarren eskubideak urratzea dela manifestazio baketsuetan parte hartzeagatik norbait zigortzea.

Mozalaren Legea, onartzeaz

Urte amaitu aurretik, indarrean jarri dezake Espainiako Gobernuak prestatu duen Herritarren Segurtasunerako Legea (Mozalaren Legea izenez ere ezaguna). Lege horrekin, zailagoa izango da manifestatzea eta gogorago zigortuko da (600.000 eurora arteko isun ekonomikoak jarri ahalko dituzte). Herritarren protesta kriminalizatzea helburu duela salatu dute hainbat eta hainbat talde sozial eta politikok. Hala nola, baimenik gabeko manifestazioak egitea, poliziari “errespetua edo begirunea galtzea”, eraikinak okupatzea eta manifestazio, elkarretaratze edo ekitaldi publikoren bat “aztoratzea” gatzigatuko dute. Herritarrentzako oinarritzko zerbitzuak eskaintzen dituzten eraikinetan edo inguruetan baimenik gabeko elkarretaratze edo manifestazioak egitea, esaterako, falta oso larritzat hartuko da. ■



Langileari presioa sartzea da enpresaren filosofia

Ane Etxegarai Aizpurua naiz, hernaniarra eta 24 urte ditut. Azken urteetan hainbeste zabaldu diren arropa denda kate handietako batean aritu naiz lanean, baina ez diot inori gomendatzen.



SEI HILABETE INGURUZ egin dut lan Inditex taldeko denda batean. Lehen ere banekien baldintza kaskarretan zeuzkatela langileak lanean, baina nik neronek ezagutu ditut orain. Lehen egunetik hasten da presioa. Badirudi lehen minututik kontrolatu beharra daukazula dendako martxa. Almazenera joan eta hau eta beste ekartzeko, eta ez esateko lehen eguna duzula, joan eta egiteko. Oso enpresa bertikala da eta saltokiek ere modu horretan funtzionatzen dute. Maila baxuenetik hasi nintzen, normalean hasiberri guztiak bezala. Ondoren enkargatuak daude, bigarren enkargatuak gero, eta horrela pixkanaka gora eta gora. Presioak ere maila batetik bestera funtzionatzen du; guri enkargatuak agintzen zigun gauzak nola egin, baina hauek ere beren gainekoek presionatuko zituzten, salmenta kopuru altuagoak eskatuz. Beti azkarrago eta azkarrago egiteko esanez, beti gehiago nahian. Inspekzioa tokatzen zitzaigun batzuetan: arropak banaka aztertzen joateko eskatzen ziguten; desegin, poltsikoren batean alarmaren edo objektoren bat ote zegoen begiratu eta berriro ere bere lekuan jarri. Eta hori guztia haserre antzera eskatuta beti. Tentsioa egoten da sarri, lehia handia langileen artean, batak besteari postua lapurtuko dion beldurrez.

Hilabeteko kontratuak egiten dituzte hasieran eta hilerro berritu, niri hala egiten zizkidaten behintzat. Orduko 6 euro inguru kobratzen nuen. Ordutegia, berriz, astekoa jartzen ziguten; eta ez pentsa asterokoa ere

goizez edo arratsalde izaten zenik! Bi egunetan goizez, hurrengo eguerdi-arratsalde partean, eta beste pare bat egunetan ixteko orduan. Beste lanen batekin edo ikasketekin moldatu ezinezko ordutegiak izaten dira.

Dendan denbora bat daramazunean komisia kobratzen hasten zara, baina ni ez nintzen fase horretaraino iritsi. Badakit (lankide batek esanda) zenbait dendatan saltokiko arlo guztietan saldutakoaren arabera ematen zaiola langileari, salmenta sailka kontuan hartu gabe, baina beste leku batzuetan sailari lotuta joaten da, hau da, sail bakoitzeko langileari bere arloan saldutakoaren arabera ematen zaio. Enkargatuek diote enpresaren filosofia dela eta langileak motibatuta mantentzeko balio duela. Langileek baldin badakite gehiago saldutz gero gehiago poltsikoratuko dutela eurek... Baina hori ez da helburu horretarako egindakoa, langileari presioa sartzeko baizik.

Ez da kasualitatea astero langile berriren bat egotea. Izugarria da egoten den jende trafikoa, eta espero dut berriro horrelako denda batera lanera itzuli behar ez izatea; baina nork daki, ezer ateratzen ez baldin bada... Ikaragarriena, ordea, hauek guztiak jakinda ere merkataritza-kate hauetako kontsumo maila da. Beldurtzekoa. ■



HILETA ZIBILAK

Gero eta gehiagoren aukera, baina oraingoz minoritarioa

Erljioak garrantzia galdu du gure bizitzetan, baina oraindik presentzia handia dauka gure heriotzetan. Hileta erritu katolikoek gainbehera ez da, inondik inora, beste arloetako elizkizunena bezain nabarmena. Hileta zibilak etorkizunean nagusi izango direla iragarrita dago, baina oraingoz oso gutxiren hautua dira, gero eta udal gehiagok horretarako espazioak eskaini arren. Heriotza-erritu zibilen nolakotasuna, izan ere, eraikitze fasean dago oraindik, Iñaki Olaizola adituaren esanetan.

| UNAI BREA |

BIZITZA OSOAN ingeniari aritu eta gero, 60 urterekin –duela hamar-kada bat inguru– erretiro goiztiarra hartu eta antropologia ikasten hasi zen Iñaki Olaizola donostiarra, baita doktorego tesia egin ere. Geroztik, heriotzarekin zerikusia duten gaiez ikertzen dihardu buru-belarri. Gehien aztertu duen arloetako bat hileta zibilak dira: “Ez daukat datu zehatzik, baina gero eta erritu zibil gehiago egiten da. Pertsona batzuek ez dute pentsatu nahi beren heriotza-errituaz, nahiago dute gaia saihestu eta ez dute horretaz hitz egiten, baina gero eta gehiagok agertzen dute interesa”.

Interes horren ondorioz, hileta zibilak suspertzen ari dira, Olaizolaren aburuz. Baina eraikitze-lanetan daude oraindik;



Hileta zibila Arrasaten.

esan nahi baita, momentuz ez dagoela argi nolakoa izan behar duen hileta zibil batek.

“Sortzen ari den zerbait da, eta ez dago eredu bakarra”. Olaizola hileta zibiletara joaten da eta jendeari galdezka hasten zaio: zer ari gara ospatzen hemen? Festa, agurra, omenaldia? Inork ez dauka argi, nork bere erara bizi du. Hori bai, banan-banan galdezka hasita bakoitzak nolakoa nahi lukeen bere heriotza-erritua, “jai eguna izan dadila” erantzuna gailentzen dela dio ikerlari donostiarrak. Alegia, ez dadila izan atsekabe edo dolu eguna.

“Erritualaren eraikuntza horretan, elementu amankomun batzuk nabarmentzen hasi dira”, dio Olai-



FUNERARIA GONZALEZ
EHORZTETXEA

Baltsamazio, kontserbazio eta berreiraketan adituak

Beilatoki guztiak, errausketak, Aseguruekin ere lan egiten dugu

Munalurra 8, Usurbil (Gipuzkoa)
☎ 943 362 163 | 660 388 652



TABISA
BIDASOAKO BEILATOKIA

IRUN
Anaka 11
943 61 54 57

*... eta lasaitasunean
betiko inguru goxoan*

HONDARRIBIA
San Pedro 49
943 64 54 57

zolak. Horietako bat litzateke hildakoaren biografiari garrantzia ematea, haren bizitza gogoratzea, baina ez haren hutsegite edo akatsak zurituz, edo ez behintzat sarritan egin ohi den hein berean. Senide edota lagunek hitza hartzea izango litzateke beste elementu bat. Baita musikari protagonismoa ematea ere, normalean hildakoaren gustukoa zena.

Biografia bakoitzari bere agurra

Gako-hitza pertsonalizazioa da, alderdi biografikoa nabarmentzea. “Hori da elizaren erritualetan falta dena”, uste du Iñaki Olaizolak, “batzuetan bi pertsonaren hileta egiten da aldi berean, bien izenak aipatu eta kito, mezak aurrera jarraitzen du; hori trufatzea da, pertsona bakoitzak bere erritua behar du, eta gaur egun ukitu pertsonal hori ematea apaizaren borondatearen menpe dago”. Oro har, hileta erlijiosoek –katolikoek behintzat– ez dute transmititzen horrelako ekitaldi batek transmititu behar duen emozioa, Olaizolaren iritziz.

Eliza katolikoak trokelatuta egiten ditu hiletak, pertsonalizatu gabe. Besteak beste, ezin dutelako. Hartara, gutxitan aipatzen den datua ekarri nahi du gogora Olaizolak: langile falta. “Gutxi gorabehera populazioaren %1 hiltzen da urtero. Horrek esan nahi du Hernani batean, esaterako, 200 lagun inguru hiltzen direla denbora tarte horretan. Denak erlijiosoak balira, 200 hileta elizkoi lirateke. Eta apaiz bakarra dago denentzat. Ez dago azpiegiturarik hori behar bezala antolatzeko. Gizarte zibila, aldiz, ari da prozesua eraikitzen”.

Ari da, bai, baina astiro. Erreportaje hau egiteko gurekin mintzatu diren guztiek esan dute geldiezina dela Olaizolak aipatzen duen eraikitze-prozesu hori, baina oraingoz oso presentzia txikia duela. Tamalez, datu gutxi

Ibaola Harriak hilerri ateo, Villabuenan (Araba). Joseba Ibañezek 2012ko urtarrilean ireki zuen hildakoen errautsak “modu ordenatuan” gordetzeko aukera hau, baina oraindik ez du jaso eskaririk.

dago. Eskuratu ditugun apurretatik, ia denak Frantziako Estatuari dagozkio: PFG ehorzte-tekarteak iaz egindako azterketa baten arabera, Frantzian hiletan %30 dira zibilak. Hego-mendebaldean, Ipar Euskal Herria barne, %25eraino jaisten da portzentaje hori. Hori bai, gorpua errausten den kasuetan %53k aukeratzen du erritu zibila (estatu osoko datua). Korrelazioa ez da erabatekoa, ezta gutxiago ere, baina badago nolabaiteko lotura erritu motaren eta gorpua erraustu edo lurperatzearen artean. Badirudi azken agur katolikoa nahi dutenek joera handiagoa dutela lurperatzea hautatzeko. Hala ere, errausketak kopuruak azken urteetan izan duen gorakada handiak ez du isla erritu zibil kopuruan.

Nonbait, beste arlo batzuetan –ezkontzetan, berbarako– agerikoa den sekularizazio prozesua ez da indarrez iristen ari bizitzaren amaieraren kudeaketara. Datu zehatzik izan gabe ere begi-bistakoa da hori. Azken urteetan Hego Euskal Herriko gero eta udal gehiagok onartu dituzte hileta zibilak arautzeko ordenantzak; beste asko onartze bidean



Ibaola Harriak


Hileta zerbitzuak - Beilatokia

LEA-ARTIBAI

Artabide 24 · 48700 ONDARROA

☎ 946 166 212 / 946 830 960

659 879 268





daude. Gauza handirik ezin arautu, ordea, hurkoari agurra ematea kontu pribatu samarra baita. Besterik gabe, udalek toki zehatzak atondu dituzte zeremonia horietarako, dela areto bat, dela plaza bat... eta haiek erabiltzeagatik tasak ezarri. Kasuren batean, Arrasaten esaterako, hiletan gidari lanak egiteko boluntarioak eskatu dituzte, baina normalean erritua antolatzen duenari lekua eskaini eta gainerako guztia haien esku uzten da.

Udalek aretoa eskaini bai, baina...


Halako ordenantza bat onartu duen udaletako bat Santurtzi da. Lezo Urreiztieta zinegotziak dioskunez, bi areto dauzkate egokituta horretarako; bata, hogeitau lagunentzako modukoa, udal hilerrian bertan; bestea, ehun pertsona hartzeko gai dena, hiri erdian. Atontzea, kasu honetan, hustearen sinonimotzat har liteke. "Espazioa hutsik dago eta zuk nahi duzuna ipini dezakezu erabiltzen ari zaren bitartean: gurutze bat zein ikur komunista bat. Hasieran aztertu genuen

Santurtziko Udalak inolako sinbologiarik gabeko areto txiki bat prestatu du hilerrian, edozein motatako zeremoniak egin daitezkeen. Oraingoan inork ez du erabili.


Hileta erlijiosoak beherantz, baina oso pixkanaka


Santurtziko kasua ez da salbuespena. Gaur egun dozenaka udalerririk zerbitzua eskaini arren, eta jendartearen aldeko giroa izan arren, oso hileta zibil gutxi egiten da. Edo behintzat, oso gutxi egiten da udal aretoetan; hortik kanpo, ez dago jakiterik.

Edozein kasutan kopurua zeharo txikia da, ehorztetxei kasu egitera. Hileta edozein motatakoa dela ere, ia hildako guztiak haien eskuetatik igaro behar dira. Haiek arduratzen dira, halaber, elizarekin harremanean jar-tzeaz, familiak hileta katolikoa eskatzen duenean. Bi ehorztetxerekin hitz egin dugu, bata Getxon eta bestea Iruñean, eta bietan esan digute familia gehienek oraindik bide hori hartzen dutela. "Gaur-gaurkoz, hiltzen den jende gehiena giro erlijiosoan hazitakoa da, eta senideek horren arabera hileta antolatzen dute, batzuetan hildakoak hala adierazi zuelako bizirik zegoen bitartean, besteetan familiak uste duelako horixe litzatekeela


Zarautz
Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)
☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net


Harrespil
Hilerri eta Hileta Zerbitzuak


Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)
☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak



haren nahia”, esan digute bietan, oso antzeko hitzekin. “Belaunaldi oso bat igaro beharko da hileta erlijiosoaren gainbehera nabarmena izateko”.

Getxoko Sarria ehorztetxeko langile batek argitu digunez, igaritzen da hileta erlijiosoa eskatzen dutenen kopurua gutxituz doala, baina oso apurka. Bestalde, horrek ez du esan nahi elizara joateari uko egiten dioten guztiek hileta zibila antolatzen dutenik; besterik gabe, ehorztetxeak ez daki familiak zer hautu egiten duen. Edozelan, gehien-gehienek “betikoari” eusten diote. Datu bakarra lortu dugu joera horri buruz: Gipuzkoako ehorztetxeen estimazioaren arabera, hileta ez-erlijiosoak %5 besterik ez dira herrialde horretan. Salbuespen bat Eibar da, erritu zibilek hamarkade-tako tradizioa duten herria.

Mendetako eskarmentuaren pisua

“Hileta katolikoen indarra galduko dute etorkizunean, baina egia da oraingoz eusten diotela”, dio Iñaki Olaizolak. “Ez dugu ahaztu behar heriotza dela Elizaren espezializazio nagusia. Zenbat mende izan

dute beren erritua egituratzeko? Zeremonia politak dauzkate, musika, organoa... Hitz batean, materiala daukate. Familia edo lagun talde gehienek ez daukate horren alternatiba eraikitzeke behar den indarra. Nik ikusita dauzkat Holandan kanpoko pertsona batek gidatutako hileta zibilak; ondo jantzitako gizon bat, ekitaldi solemnea... Profesionalizatu beharko litzateke kontua? Hileta zibiletarako zeremonia-buru lanbidea existitu beharko litzateke? Zalantza daukat, baina agian bai”.

Zeremonia-buruaren auziaz zalantza egin arren, Olaizolak argi dauka lekuarekikoa: leku bereziak behar dira hileta zibiletarako. Leku antropologikoak, bere hitzetan. “Erakargarriak izan behar dute, gozoak, beroak, bertan daudenei talde barruan sentiarazten dietenak... Uste dut gizarteak eskubidea daukala horrelako lekuak eskatzeko, eta ausartagoa naiz, kontu handiz

esango badut ere: uste dut elizak gizarte zibilaritza itzuli beharko litzazkiokeela”. Ikusiko al dugu halakorik bizitza honetan? ■




Hileta zibil guztien elementu amankomun bat alderdi biografikoa nabarmentzea da, hildakoaren bizitza gogoratzea

Hainbaten ustez, belaunaldi oso bat igaro beharko da hileta erlijiosoaren gainbehera nabarmena izateko

Moyua hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako



☎ 943 783 447 / 617 442 466

Otadui Gotzaina kalea, 27
20560 Oñati (Gipuzkoa)

mmoyua@telefonica.net

www.tanatorio-guipuzcoa.com



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Eta orain zer?

ESKOZIAKO ERREFERENDUMARI eskaini nion tartetxo hau orain lau astebete. Orduan oso oinarrizko ideia batzuk adierazi nituen: herriari galdetzea bera, herria eta herritarron subiranotasuna, duintasuna eta askatasuna onartzea besterik ez dela. Eskozian bizi izan den normaltasun politiko eta soziala, autodeterminazio eskubidea, European, ez zaiela jadanik herri “kolonizatuei” bakarrik zergatik mugatu behar; bai Euskal Herrian, baita Katalunian ere honetaz eztabaidatu eta erabaki nahi duten herritar kopuru nabarmena dagoela, subiranotasuna hitz egin ahal izatea dela.

Derrigortuta nago gaiari beste buelta bat ematera. Kataluniako errealitateak horrela eskatzen du. Egia esan, banekien horrela egin beharko nuela. Baina ez nekien zer esango nukeen, ezta zein izango zen errealitatea. Ez dakit zer pentsatzen nuen gertatuko zenari buruz eta nola bilakatuko ziren gauzak. Azkenean, panorama argitzen ari da –edo iluntzen, hori ez dakit–, behintzat datorren azaroaren 9an zein izango den herritarrek izango duten aukera gutxi gorabehera badakigu, gehiengo politikoaren aukera Konstituzio Auzitegiak aldi baterako etetea erabaki eta gero.

Katalunian eman den erantzuna oraindik nahasia da, baina argituz doa. Bi gako azpimarratuko nituzke: bata, batasun politikoa mantentzea, bestea, herri mugimenduaren nahia asetzea

Gai batzuk ezin dira juridikoki aztertu, ez soilik, behintzat. Zuzenbideari bakarrik begiratuko bagenio, inork ezingo luke adierazi zergatik Auzitegi Konstituzionalak hartu duen Kataluniako gehiengo politiko eta soziala kanpoan uzten duen erabaki “expres” hori. Alde batetik, Espainiako Konstituzioak berak, bere 150.2 artikuluen bitartez, autonomia erkidegoei hainbat ahalmen eskualdatzea baimentzen dielako; bestetik, oso zaila

delako ulertzea Kataluniako etorkizunari buruz Espainiako herritar guztiek parte hartu behar izatea –begira, Eskozian ez da horrelakorik gertatu–.

Behin eta berriro entzun dugu Espainiako Gobernuak ez zeukala beste irtenbide juridikorik, baina hori onartezina da. Katalunian herriaren gehiengoak azaroaren 9an bere iritzia eman nahi badu –horretaz ez dago zalantzarik–, hori politikoki bideratu behar da, Eskozian egin den bezala. Espainiako Konstituzioa aldaezina ez dela begi-bistakoa da –bere 135. artikulua ezin azkarrago aldatu baitzuten PPK eta PSOEek 2011ko abuztuan “merkatuak” lasaitzeko asmoz–. Gauza bera egin zezaketen oraingo honetan, horrela behar dela uste izanez gero. Baina gai horretaz beste aldagai garrantzitsu batzuei erreparatu behar diegu: 2015ean burutuko diren hauteskundeekiko alderdien kalkulak eta Konstituzioarekiko “fundamentalismoa”, non Konstituzioa hainbat asmoren aurkako “arma” bortitza bihurtu den.

Katalunian eman den erantzuna oraindik nahasia da, baina argituz doa. Bi gako azpimarratuko nituzke: bata, batasun politikoa mantentzea, bestea, herri mugimenduaren nahia asetzea. Lehena alderdien kalkuluei lotuta dago, baina herriak baldintza dezake: alderdi guztiek dakite asko dagoela jokoan eta herritarren nahiak alboratzen dituenak asko gal dezakeela. Bigarrena errazagoa da: argi dagoena da azaroaren 9an herriak hitz egiteko aukera izango duela eta erantzuna zabala eta sendoa izango dela.

Gainera, mundua ez da bukatuko 2014an, ezta Espainia ere. 2015ean hauteskundeak daude: maiatzean, erkidego autonomoetan, udaletan eta foru aldundietan; udazkenean, orokorrak. Gaurko indarren banaketak ez du iraungo –ala bai?– eta, seguruenik, askatasunaren eta subiranotasunaren aldeko iritzia indartuko da. Azken finean, 1978ko erregimena da zalantzan dagoena, bere osotasunean, eta honetaz ere “plebiszitua” egingo da, hala nahi badugu. ■





Mikel Irizar

KOMUNIKAZIOAN ARITUA ♦



DANI BLANCO

Euskara eta independentzia

EZTABAIDA BERRIAK ari dira loratzen gurean, aspaldi behar genituenak. Hogeitamar urte eta gero, hasi gara hitz egiten askatu beharreko korapiloiez: subjektu politikoa eta lurraldetasuna, barne antolamendua eta lurralde historikoak, identitatea eta independentzia...

Azken esparru honetan sartzen da bete-betean euskararen eta independentziaren arteko harremana. Eta lehen unetik ari da plaza-ratzen exijentzia moduko bat euskaltzaleoi independentziaren alde konprometitu gaitezen, erabat segurua bailitzan independentziak –eta berak bakarrik– bermatuko diola etorkizuna euskarari.

Eta ez, ez da gauza segurua. Independentzia prozesu batzuk bai garatu dira bertako hizkuntzan edota bere mesedetan –errepublika baltikoak, Katalunia...– baina beste batzuk ez –Irlanda, Eskozia...–. Esango nuke bata edo bestea gertatzen dela hiztun komunitate bakoitzaren tamaina eta indarraren arabera, eta hori horrela bada gure komunitatea asko indartu beharko dugu balizko independentzia euskararen mesedetan izan dadin.

Bada beste kontu bat ere: independentzia irabazteko aski izan liteke hautesleen %51a lortzea, nahiz %49a aurka egon. Ordea hizkuntza bat normalizatzeke ez da aski %51 hori, gutxienez baldintza da ulermen unibertsala, besteak beste. Eta gainera komeni da aur-

kakoak izatea ahalik eta gutxien.

Gauzak horrela, euskararen normalizazioak eskatzen du independentzia zaleek euskaraz egitea, baita unionistek ere. Hizkuntzaren biziberritzea ezin da mugatu bi esparruetako batera. Ikuspegi honetatik, euskaltzale banakoak izango du bere hautu politikoa, tartean independentziarena. Baina euskararen gizarte erakundeei ez dagokie hau-turik egitea.

Zilegi den moduan independentzia zaleek nahi badute hautesle euskaltzake ere gurdira igotzea hartu beharko dituzte konpromiso zehatzak hizkuntzaren gainean. Ezingo dute hizkuntzaren gaia alboratu geroko gerotan, iraganean mai-zege gertatu izan den moduan; alderantziz, garbi azaldu beharko dute nola egingo dion mesede independentziak euskararen normalizazioari.

Adibide egokia da Urtzi Urrutikoetxea independentzia zalearen txio hau: “Eusk(al) estatuaren 1. lanetakoa, besteek analfabetismoaren aurkako kan-painekin lez, monolinguisismoaren aurkakoa egitea”. Hori litzateke modua euskaltzale bana-koak independentziaren alde jartzeko.

Bitartean, ez ditzagun euskara eta independentzia uztarrian lotu, ez eta elkarren kontra jarri. ■

Euskararen normalizazioak eskatzen du independentzia zaleek euskaraz egitea, baita unionistek ere



XDZ



Joanes Etxebarria



KAZETARIA

Erosketak

NORMALEAN, zutabegilea ona dela diot egia borobilak plazaratu ohi dituelako. Ni ez naiz nahi bezain ona, beraz, gezurra kontatuko dut. Mauleko Carrefour saltegi aitzinean gertatu zen. Lagun bat, etxera autoz zihoalarik, ikuskizun baten erdira iritsi zen. Bide-bazterrean gizon bat hamaika ahalegin egiten ari zen zutitzeko lohi artetik. Bere ezintasuna hain zen agerian zutitzeko laguntza behar zuela, begibistakoa zen. Hortik hamar bat metrora, saltegitik aparkalekuan, erosketak autora sartzen ari zen jende franko. Lohian lerra eta lerra, burua lurrera jotzeko zorian, gure gizona hatsanturik mintzo zen laguntza eske, boza ahul.

Lagunak autoa gelditu, laguntza proposatu, eta gizonak hala galdeturik medikura eramane zuen. Itxarongelan zeudela, medikuak arta noiz eman aiduru, haur batek bere amari galdetu zion zer deabru gertatzen zitzaion gizon horri herrenka ibiltzeko. “Sobera edan du”. Medikua atera zenean, lagunari hala erran zion: “Berriz ere ikusiko duk lurrean, eritasun bat badik”.

Jendea etxera sartu zen erosketekin, eta han gelditu zen gizona medikuarekin. Ez bazitzaion laguna ondotik pasa, han zegokeen oraino zutitu nahian. Gertakariak gezurra izan behar zukeen. ■





Joxe Iriarte Bikila

♦ IDAZLEA

Iulen Madariagaren egia

EGIARI ZOR izenburu potoloarekin jantzi ditu Iulen Madariagak bere memoriak. Niri gehiegizkoa iruditzen zait halako izenburua, memoria kontuetan oso zaila baita norberaren egia hizki nagusiz idaztea. Gauza batzuk egiazkotzat jo ditzakegu: datak, gertaera jakin baten ingurua edota izen-abizenak, esate baterako. Alabaina interpretazio kontuak, narrazioa bera, norberaren memoriarekin oso lotuta daudenak, nik dudazkoak ditut. *Borroka*ren gorrian liburuan nire egia kontatu nituen, besteen egiekin eztabaidatzekoak, Iulenek zinezkotzat jotzen dituen zenbaitekin, esate baterako.

Hots, garaiko zenbait dokumentu berrirakurritak, ausartzen naiz esaten Iulenen bertsioa VI. Asanbladan gertatutakoaz (berarentzat Sasi-Batzar Nagusia) eta nirea kontraesanean daudela. “Barne-eztabaidaren arrazoa, azken urteetako berbera zen: zoin zen ETArek lehentasuna? Gizarte iraultza ala herri askapena?”, galdetzen du Iulenek, baita erantzun ere: “Herri askapena”. Baina nago, gauza bat dela une jakin batean zein atalek hartzen duten indar gehiago (diktatura garaian askatasun demokratikoak aldarrikatzea) eta oso bestelakoa, gizarte iraultza eta herria askapenaren artean lehentasunez hitz egitea. Bata besterik gabe posible ote?

Bestalde, bitxia egin zait zein sutsu eta ziur azaltzen den beti ETA V-Milien alde (trantsizioaren lehen urteetan barne), harik eta 80ko hamarkadan,

bere ustez, erakundeak norabide okerra hartzen duen arte, irabazitakoa pikutara bidaliz. Egia da garai hartan eman zituela ETAk jauzi gordin eta ankerrenak (kualitatiboenak), baina nago borroka armatuaren estrategia-izaeraren aldaketa aspalditik zetorrela –Correo kaleko atentatua, Angel Berazadi enpresariaren hilketa, Atotxako sarraskia–, nahiz eta efektu desberdinak izan diktatura edo demokrazia liberalean.

Bitxia zait zein sutsu eta ziur azaltzen den beti ETA V-Milien alde, harik eta 80ko hamarkadan, bere ustez, erakundeak norabide okerra hartzen duen arte, irabazitakoa pikutara bidaliz

Garai hartarako, Emilio Lopez Adanek (*Beltza*) argi eta garbi azaldu zituen aldaketa horien ondorioak (*): “Interpretazio ideologikoaren bidez ‘etsai objektiboak’ izendatu, edo hobengabekoen heriotza onartu, eta menperatzaile zuzenak ez diren pertsonal biktimak bezala hautatu, hori ezin dugu onartu. Azken finean, etikarik gabe ez dugu askatasunik izango”.

Nire elkartasuna Iuleni, hain zitalki eta bidegabe tratatua izanagatik, baina hori ez da berria: ETArek historiaren partaide garenok antzeko medizina irentsi edota irentsarazi digute. Gaur herexen mailu eta bihar ingude: ETA Berri, ETA VI, ETA pm, Iratzar, Aralar. Batzuentzat Otegi eta bere kideak *likiak* dira.

Ontsa izan, Iulen. Urte askotarako!

(*) Biziki gomendatzen dut ETArek *estrategia militarren historia*. Beltzaren azken liburua. ■



Kanporaketak



Mallabian, azaroaren 2an, 17:30ean, Mallabia I. Kirol Etxean



Arrate
Illaro
Etxebarria



Eneko
Arrate
Sololuze



Gorha
Ostolaza
Iharan "Potxis"



Malen
Amenabar
Larrañaga



Nerea
Ibarzabal
Salegi



Peru
Vidal
Gurrutxaga

www.bertsotzale.eus/bizkaikotxapelketa



BERTSO BERRIAK



DANI BLANCO

Pello Zubiria Kamino



Hor datza *Egunkaria*

Doinua: Hor dago *Egunkaria*.

1

Hor datza *Egunkaria*
behar zen mezularia
Hor datza *Egunkaria*
noren aiztoak moztu du
euskaldunon eztarria?
Euskaldunon eztarria
hor datza *Egunkaria*.

2

Inmaculada Gomila
Larrunen gaindi habila?
Inmaculada Gomila
mamuak askatu ditu
De Lancrek sorginen bila.
Mamuak sorginen bila
Inmaculada Gomila.

3

Iñaki zer egin ditek?
Iñaki zer egin ditek?
Gorilek barre dagite
zein zulotan ez miatu
txintxoek ongi dakite.
Iñaki, zer egin ditek?
Txintxoek ongi dakite.

4

Aita Saindua elizan
errege jauna ehizan
errege jauna ehizan
Luis Goiaren arnasentzat
ez da errukirik izan.
Ez du errukirik izan
errege jaunak ehizan.

5

Xaho eta Lauaxeta
lumak tristuraz beteta
Xaho eta Lauaxeta
euskaldunen haserrea
bildu zuen kroniketan.
Haserrea kroniketan
Xaho eta Lauaxeta.

6

Kraskitin eta kraskitin
ez arrosa, ez krabelin
kraskitin eta kraskitin
Eginen altxor galanta
usteltzen dago Hernanin.
Kraskitin eta kraskitin
Egin usteltzen Hernanin.

7

Etarra naizenez gero
ez dut zerurik espero
ez dut zerurik espero
Del Olmori zor dizkiot
lau gau beltz eta sei ero.
Ezin zerurik espero
etarra naizenez gero.

8

Eder Madrilen gurbitzza
hari begira haritza
eder Madrilen gurbitzza
Hartzaren eskutan beti
euskaldunaren bizitza.
Madrilgo hartz ta gurbitzza
haiei begira haritza. ■



Ergel maitagarri hori

Esaten dutenez, pertsona beste klown edo klun dabilta munduan. Bakoitzak du berea. Barrea eragitea gauza serioa denez, Euskal Herrian dauden zenbait klownengana jo dugu, pertsonaia honen gainean hitz egiteko. Gehienek gauza bera diote: klowna ez dela pertsonaia, munduan egoteko modua baizik. Oinarrizko ikasgaia da klownarena, arte eszenikoetan dabiltzanentzat eta edozeinentzat ikasgai baliagarria, sudur gorria janzteak munduaren ikuskera aldatzen baitu.

| MYRIAM GARZIA |

“BARREGARRIA ZARELA uste duzu?” galdegin dio Philippe Gaulierrek klownari. “Ez Philippe!” erantzun dio ozen. “Barrea eragiten ez baduzu, ez zara klowna! Kalera!”. Maisuak ondo ezagutzen ditu aktoreen desirak eta asmoak, eta nola ez, YindeYan antzerki taldeak eta Stock Umoreak antolatuta, maisu handi honen master classera Bilbora hurbildu direnen nahiak. Aktorea muturrera eramanez, harengandik onena atera nahi du Gaulierrek, norbere klownaren zuku miresgarria.

25 bat aktore heldu dira Philippe Gaulierren master classera eta pertsonaia bana defendatu dute maisuaren aurrean: militarra, txirrindularia, Romeo, Marilyn, monja, sagutxoa, bainurako jantzitakoa, erromatarra, gentleman-a... Aktore beste klown. Gaulierrek jokorako arauak ezarri ditu, eta danbor hotsez, klownak eszenan agertu eta desagerrarazi ditu. Aktoreek, sudur gorria jarrita, pertsonaiari eutsi diote, maisuaren ikasgaiak edo gomendioak entzuten eta erantzuten dituzten bitartean. Klownak dira, ez pertsonak, ezta aktoreak ere. Eta, Gaulierrek sufriarazi egin badie ere, aktoreak zein saio ireki honen publikoa poz-pozik atera gara aretotik, irribarrea aurpegian.



Eskuinean, Philippe Gaulier. Goian, bere ikastaroan parte hartu zuten zenbait lagun.



JUANJO ELOLA



Klowna ala ezer ez

Aitor Basauri, Stock Umorearen sortzaileetako eta aktore ezaguna, Gaulierren ikasle izandakoa dugu aspaldi. Londresen eta Bilbon bizi da. Spymonkey antzerki taldea sortu zuen duela 15 urte, klowna eta umorea oinarrian dituen konpainia. Batez ere Londresen jarduten du, baina hainbat lan egin ditu, tartean Circe de Soleil ikuskizunetako batean, zeremonia maisu moduan. Klowna da.

“Gaulierrek gustoko dituen klownak lantzen ditugu, hau da, ergelarena egiten dugu. Baina ergelkeria sentsibilitate handiz erakutsi beharra dago, plazer handiz eta dibertitzeko” dio aktoreak.

“Ez dakit zer den klowna, eta ez dut jakiteko gogo berezirik” jarraitu du Basaurik. “Nik ez dut sudur gorriarik erabiltzen. Garrantzitsuena ez da zer, zertarako baizik. Nire ustez, ergelkeria erakutsiz barrea eragiten duena da klowna. Baina jendea ez zaizkio axola definizio horiek guztiak, berdin egingo baitute barrea. Antzerkiak barrea eragin, hunkitu, zirikatatu, kilikatu, negarra eginarazi eta beldurtzeko balio behar du. Emozioak eragiten badizkidate, ‘zein ondo pasatu dudan antzerkian’, esango dut. Gure taldean ergelkeria erakusten dugu, gure buruaz barrea egiteko, eta horrela, publikoari barrea eragiteko”.



Eneritz Artetxe, *Konpota* antzezlanean.



MARIAJE FUENTE HERRERO

Ezkerreko argazkian Magali Larroque eta Juan García de Rueda, Klown Naturala ikastaroan. Eskuinekoan, Esther Carrizo Klowntzierto Poetikoan. Biak, Intzan.

Izan ala ez izan, klownak ahalmen berezia du: barrea eragitea. Pertsonaia edozein dela ere, gorrotagarriena ere, demagun guardia zibil batena, maitagarri bilakatuko da publikoaren aurrean, sudur gorria jantziz gero. “Sudur gorria jartzen duena, ‘nitaz barre egin, ergela naiz eta’ esaten ari zaio publikoari. Emankortasun ariketa hori, pertsona orok egin beharko luke”.

Norbere klownaren bilaketari buruz zera dio aktoreak. “Bizitza ematen dugu geure baitako klownaren bila, baina aurkituz gero, klown hori hil eta beste bat jaioko da, azken finean, klownaren bilaketa norbere buruaren bilaketa delako. Horregatik, zeu aldatzen bazara, zeure klowna ere zurekin aldatuko da”.

Klowna ergel bat dela dio Aitor Basaurik, eta neurri batean, “denok gara ergelak. Batzuk jakinaren gainean daude, eta besteak ez dira horrenbeste jabetzen. Klownaren esentzia zera da, publikoak hari barre egin diezaion, berari lehendabizi eta berarekin gero”. Hala ere, “klownak ez du mezurik”, Basauriren ustez. “Salaketa politikoa edo soziala bufoiarena da gehiago”.

Bufoia eta aktorea dugu Eneritz Artetxe, Dxuturi Teatroko kidea. Hala ageri da behintzat, *Konpota* bere azken lanean –Philippe Gaulierrek berak idatzia eta Antton Lukuk frantsesetik euskarara itzulua–. “Nire bufoia ateratzeko aukera eman dit antzezlan horrek. Nire ustez, bufoia edo klowna ez dira pertsonaiak, barruan dugun izateko modu bat baizik. Inkontzienteki ateratzen diren ahuleziez edota une barregarriez elikatzen da klowna, gure gizatasunaren seinale horiez. Ez duzu bufoiarena egiten, barrutik ateratzen den zerbait da” dio Eneritz Artetxek.

Klowna eta bufoia desberdinak dira Arte txeren ustez. “Bufoia gizarteak baztertua da, ez du ongizate jendarte honek ontzat ematen dituen standarrekin bat egiten, eta horregatik, gizarte kanpotik ikusteko ahalmena du, hori du bere boterea. Kritikatzeko askatasun izugarria du, ez baitu ezer galtzekorik. Eta esatean dibertitzen da”, azaldu du aktoreak. “Bufoiak egia esateko beharra du, nahiz eta



gerora, hori bere kalterako izan. Betiere zeharka, ironiaz, umorez baina jendeak marka dioen hori, esan egiten du bufoiak. Ongiaren eta gaizkiaren gainetik dago, eromen puntua du. Eta, publikoarekin jolasean aritzen da, katua saguekin nola. Joko horretatik ateratzen da ironia”.

Emakumea eta bufoia izatea ez da erraza izan Eneritz Artetxerentzat. Emakumea umoretik baztertua izan dela uste du. “Ez dago umore unibertsalik, batzuek esaten duten moduan. Draman badugu tokirik, edo komedia arinean. Baina umoretik edota ironiatik baztertuak izan gara, eta bufoiari inteligentzia eta kritikarako ahalmena aitortzen zaizkio. Emakumeoi zaila egiten zaigu rol hori gureganatzea... Klownarekin beste horrenbeste, klowna ez baita tentel polit bat, muturreko gauzak egiten ditu, aurpegi zatarrak jartzen ditu, desitxuratuta agertzen da askotan, eta hori, emakumeek egiten badute, ez da barregerria askorentzat. Jar zaitez polita neska!”.

Ganso, hitzik gabeko klowna

Durango elkartu gara Gorka Gansorekin, Ganso&Cia konpainiako sortzailea eta klowna. 2007an sortu zuen konpainia, Cecilia Paganinirekin batera, Hortzmuga antzerki taldean 10 urtez aritu eta gero. Egindako lanen artean, *Renato*, *Mediopelo* eta *Babia* ditu. Orain *Walkman* izeneko ikuskizunarekin dabil han eta hemen, kalea izanik bere espazio eszeniko naturala.

Gorka Ganso,
Walkman
antzezlanean.

“Nire aurreko lanetan bezala, pertsonaia patetiko eta hunkigarri bat da antzezlan honen ardatza. Publikoa entretenitu eta bereganatzen duen pertsonaia, zirkuko arietak edota antzeko baliabideak erabiliz”, diosku Gorka Gansok *Walkman* antzezlanaz.

Azken lanetan, hitza alde batera utzi eta keinu bidez komunikatzen da publikoarekin. “Sinpletasunaren aldeko apustua egin dugu, ez dago istorio edota dramaturgiarik. Tontakieria multzo bat besterik ez, publikoarekin kontaktatzeko eta barrea eragiteko. Askotan, hitza komunikaziorako oztopo bihur daiteke. Gauza oinarrizkoak, emozionalak edota funtsezkoak adierazteko keinua nahikoa da. Berriketa gehiegi egiten dugu”. Hitzik gabeko ikuskizun horri esker, eta hizkuntzaren mugarik gabe, Frantzia barrena aritu dira Ganso&Cia taldeko kideak eta datorren urtean nazioartean mugituko dute ikuskizuna.

Gansoren ustez, klowna “pertsonaia errebelatzailea da, medium baten antzekoa. Ezkutuko egiak esaten ditu, gordetako izaerak, isilpeko ebidentziak... Jendearekin enpatizatzen du, ezkututzen saiatzaren garen zerbaiten isla delako, gure gizatasuna. Horregatik, bat-batean militarra maite dugu, armaduraren azpian dagoen gizaki hauskorra eta ahula ikusten dugulako”.

Klowna betirako biziko dela dio Gansok, eta bere ustez, “zirkutik atera zenetik han eta hemen aurkituko dugu: zineman, antzerkian, publizitatean... Gaur egun ez da soilik tresna eszeniko edota interpretatiboa, ospitaletan edota kongresuetan aurki dezakegu. Jendeak ematen dio klownari izateko arrazoia. Klowna beti egongo da jendearekin, eta bizi dugun errealitatearekiko adi egongo da”.



ITSASOAREN EMAZTEAK

Oinkari dantza taldea / Hika Teatroa
Azaroak 7, ostirala 21,30etan
Bastero Kulturgunean



Aitor Basaurirekin bat dator Gorka Ganso: “Pertsona beste clown daude. Batzuk tradionalagoak izango dira eta beste batzuk berritzaileagoak. Dena den, pailazoak errealitateari eta jendeari aurrez aurre begiratzeko dio. Pep Vilak, nire maisuetako batek, dioen bezala, ‘clownak ez daki ezer egiten eta horren gainean artea egiten du’. Clowna sortzailea da. Berak ez daki, ez da hori bere asmoa, baina gure begien aurrean bere izaera poetikoa, magikoa eta adierazgarria da”.

Edozein aktorearen curriculumean clowna oinarritzeko tresna interpretatiboa izan daiteke. “Clownaren oinarritzeko funtsa pertsonala eta errepikaezina da, besteengandik desberdintzen gaituena. Clownak bere miseriez, akatsiez, ohiturez edo bertutez barre egiten ikasi beharra dauka. Tresna baliagarria da aktoreentzat bat-batekotasuna eta autoezagutza lantzeko, eta noski, komikotasunerako”.

Clownak hezitzeko eskola

Uharteian Clown eta Adierazpen Eskola 1999. urtean sortu zuten Esther Carrizok eta Ramon Albisturrek. “Artea eta antzerkia lantzeko beste era baten alde egin genuen apustu biok. Bide ofizialeetatik at, diru-laguntzen menpekotasunik gabe, gure lana oinarritzat hartuta”. Aldi berean, 1990 eta 2009 urteen artean Okzitaniako Lombezen dagoen Bataclown konpainiako formatzailea izan da Ramon Albistur.

Uharteian eskolaren helburua, “adierazpen antzerkia eta antzerki-clownaren edukiak garatzea da, bai formazioan, baita sorkuntza arloan ere”, azaldu digu Albisturrek.

2001. urtean Mugabec clown egitaraua sortu zuten “antzerki-clownaren proposamenari muga guzien gaindi bidea emateko. Mugaldean bizi gara, Bortzirietan hain zuzen. Mugaldea bizipen eta kulturen arteko topalekua da. Gainera antzerkia guretzat arte anitzen arteko topaketa da”. Horregatik, zenbait arlotan murgiltzen dira eskolan: sukaldaritza, dantza, taichi chuan, margoa, musika eta kantagintza. Gaien aldetik euskal mitologia, genero harremanak, sexualitatea, natura, hezkuntza edo krudeltasuna bezalako edukiak lantzen dituzte.

“Gure ikastaroetan parte hartzeko ez dugu maila berezirik eskatzen” dio

“Bizitza ematen dugu geure baitako clownaren bila, baina aurkituz gero, clown hori hil eta beste bat jaioko da, azken finean, clownaren bilaketa norbere buruaren bilaketa delako. Horregatik, zeu aldatzen bazara, zeure clowna ere zurekin aldatuko da”

Aitor Basauri

Ramon Albisturrek. “Salbuespen bakarra sorkuntza lan prozesuan gerta daiteke, eta ez beti. Tailer eta ikastaroetan oinarritzeko adierazpen lana eta jolas dramatikoaren zutabeak proposatzen dira, pixkanaka clownaren inprobisaziorako baldintzak atzematen, garatzen... eszenara ailegatuz. Sortze lana garatzen dugu, amateurrena eta profesionalena. Jendearekin eszenara jauzteko prozesua lantzen dugu. Ikuskizuna emankizuna da,

hots, komunikazio jolasa, non bizitza islatzen den”, azaldu du clown eskolako kideak.

Beran kokatzen bada ere, eskola ibiltaria da Uharteian. “2007. urtea arte, Berako landetxe batekin izan dugu akordioa, udan eta oporraldietan ikastaroak egiteko. 2008tik aitzin Txantreako Auzotegi Kultur Etxean tailer iraunkorra sortu genuen. Gainerako lekuak eskaeraren eta eskaintzaren arabera”. Ipar Euskal Herrian zein Hego Euskal Herrian, eta baita ere Girondan, Dordoinan, Valentzian, Bartzelonan, Kantabrian, Montsenyn, Suitzan, Marokon, Okzitaniako Tolosan eta Tarnozen eman dituzte eskolak. “Taichiclowndu salbuespena, 2010etik lantzen dugu eta Intzako Sorabile baserrian egiten dugu”. 2001. urtetik 400 ikasle pasatu dira eskola horretatik.

“Gure lan proposamena hiru eletan eskaintzen dugu: euskaraz, gazte-



laniaz eta frantsesez. Gure ikastaroetara mugaz bi aldeetako jendea heldu da. Gure herrialdetik kanpo heldu diren aunitzek Euskal Herria aurkitzen dute, bai bere azalean, baita bere zainetan ere” esan digu Albisturrek.

Beste clown batzuek aipatu diguten moduan, bere ustez “klownaren pertsonaia eraikitzearen prozesua pertsona bakoitzaren prozesuari lotua da. Sormen prozesua da. Ez da antzerki pertsonaia bat, betebeharrak bati mugatua, lan zehatz baten zerbitzurako. Pertsonaia bezala, askatasun handia ematen du, eta bide luzerako prest egon behar da. Clowna maite dugu atsegina delako, askea delako, iraultzailea delako, haulea delako... gure barne-barnean dugun utopiaren adierazle delako” dio Albisturrek. Hala ere, “sudor gorria maskara bat da” Uhartearen eskolako sortzailearen ustez, “eta maskaratzat hartu

behar dugu. Clowna ez dago sudur gorrian, bihotzean baizik. Sudur gorria janztean lotura unibertsal bati atxikitzen gatzatzen, maskara erritualari, desorekaren arketipoari. Oso serioa da sudur gorria janzteak”.

Emakumea eta clowna

Oihulari Clown taldea 1988an sortu bazen ere, 1996 arte ez zuen profesionaltasunera jauzia egin. Hala ere, talde honen sotzaile Virginia Imazek 25 urte daramatza sudur gorria jarrita. Bera izan da Euskal Herrian ezaguna egin zen lehen emakume clowna. “Nire lehendabiziko clown ikastaroa 1983an egin nuen. Antzerkia gustuko nuen garai haietan baina asko sufritu nuen bat-batekotasuna lantzen, eta clownak ezin zuela nire bokazioa izan uste izan nuen ikastaroa bukatzean, Halaber, umorea gizonen kontua zela ohartu nintzen” azaldu du Imazek. Hala ere, “nire ikaskideak ikusita hainbesteko barrea egin eta gero, clown ikastaroak egiten jarraitzea erabaki nuen, barreak onura egiten zidan eta”. Le Bataclown konpainia frantziarrean aurkitu zuen formazio eta esperientzia aproposa. Horri esker, aktore sozial gisa dugu ezagun Virginia Imaz, frantsesez *clownanalyse* deitzen den rolagatik. Alegia, clown kodean bat-batekotasuna lantzen du. Oihulari Clown konpainiaren espezialitateak diren clownklusioek –topaketetan edo kongresuetan aurkeztu diren gaien inguruko clown parodia–, antzerki eremutik kanpo lan egitea eraman ditu kideak.

Virginia Imaz clown izateko formatzen hasi zenean, emakume gutxi hartzen zuten parte ikastaroetan. Egun, formazioari dago-

kionez, emakume gehiago badago ere, gutxi dira profesionalizatzen direnak. Beste lanbide batzuetan bezala, “gizonezkoak dira arrakasta lortzen duten clown gehienak; emakumezkoak amateur dira”.

“Ipuinak, pailazoak edota txotxongiloak umeentzat direla uste den bezala, oraindik hainbat aurreiritzi dago helduen klownari heltzeko orduan. Egia da clownak berehala beregaitzen duela jendea, bere hizkuntza, erotasuna, gorpuzkera, eta bat-batekotasun emozionala ulertzen du. Adin guztietako pertsonak, denek, poesia eta umorea behar ditugu gure bizitzan”.

Arte eszenikoetan aktore askok baliatzen dute clowna formazio gisa, “maskara antzerkiak norbere gorpuntzaren kontzientzia, emozio biologikoak, tempoa edota arnasa lantzen laguntzen duelako.

Baina ez dut aktore gehienek

clowna dutenik oinarri gisa. Aldiz, aktore gehienak tragedia, melodrama eta onspen soziala duen antzerkia dute nahiago”. Oihulari Clown konpainiak antolatzen dituen ikastaroetara hurbiltzen diren pertsonak, “ez dira aktoreak, kaleko jendea da, askok hezkuntza eta osasun zerbitzuetan egiten dute lan eta ondo dakite umorea tresna baliagarria dela geure burua ezagutzeko, ondo egoteko, loturak lantzeko”. Hala ere, Imazen ustez, “bada berri on bat: egun diharduten antzerki taldeak komediaren inguruan murgiltzen dira. Eskaera handia dago, eta egungo publikoa norabide horretan doa: barre egin nahi dute”.

Imazen ustez ere, clowna ez da pertsonaia bat, munduan egoteko modu bat baizik: “Energia bat da, begiratzeko era bat. Clowna pertsonaien kutxa txinatar bat izan daiteke, pertsonaia bat beste pertsonaia baten barruan”. Bere aburuz, “clownak zerikusi handiagoa du ikasitako urratzearekin, ikastearekin baino. Zentsura emozionala, itxurakeria, gizalege soziala, zurruntasuna, intolerantzia edo besteren azalean jartzeko ahalmen eza desikastea, alegia”.

Pailazoa poeta al den galdetu diogu Oihulari Clown taldeko kideari: “Ekintzaren poeta da. Metaforaren langilea. Bere poesia batzuetan keinu bidezkoa da, ikusten den zerbait baina betiere, ezustekoarekin lotura bat, ezohikoa, poetak bezala gu hunkitzea bilatzen duena”. Fernando Pessoa zioen bezala: “Poetak (edota clownak) itxurak egiten ditu,/ eta benetako itxurak dira,/ mina sentitzen duen itxura egiten duenean ere/ mina benetan sentitzen du eta”. ■

“Clowna ez da pertsonaia bat, munduan egoteko modu bat baizik. Energia bat da, begiratzeko era bat. Clowna kutxa txinatarra ere izan daiteke, pertsonaia bat, beste pertsonaia baten barruan”


Virginia Imaz



Literatura

Piztiak
Miguel Torga.

Itzultzailea: Bego Montorio.
Alberdania, 1997



Erreparatuko bagenie

HARA: “Vilarinhoko biztanle guzti-guztientzat, salbuespenik gabe, gauak gau ziren; iluntasuna besterik ez. Eta egunak are okerrago, argitasuna gorabehera. Aberats nahiz pobre, ez zioten ez eta eguzkiaren distirari erreparatzen. Jan egiten zuten, edan, eta ildoak ireki, kondenatutakoen egonarriaz”. Ai, alabaina, erreparatu izan baliote gauari, egunari, eguzkiaren distirari, erreparatu izan baliote aurre-aurrean zutenari, Miguel Torgak erreparatu bezala, ikusiko zuketen izan badela besteren artean piztia saldo bat, piztia gordin, goxo, anker, hunkigarri saldo bat. Luze gabe, *Piztiak* honetan bildutako horiek guztiak.

Ez dakit zergatik, animaliak literaturan haurrentzako bazka izan ohi dira. Gizajendearen trasunto onbera, zuri, kalterik gabeko izateko, edo, kasurik onenean, ume koitaduak beldurrez akabatzeke. Aitzitik Torgarenak, Bego Montorio itzultzaileak hitzaurrean gaztigatu gisara, ez dira Disney faktoriako piztia melengen abenturen parekoak. Piztia horiek asko, gehiegi gogorarazten dizkigute hezurharagizko gizon-emakumeak: eperrek, esate batera, “intzirika, pertsona ahotsa izaten zuten kasik, erruki eske”; aurrerago, ardia, “hasi zen marraka eta marraka, ume batena zirudien etsipenaz”. Hainbeste non, hankabiko nahiz lauoineko, piztieria guztia gertatzen zaigun azkenerako etxeko: Nero, Mago, Premu, Soraio, ispiluan agertuko

zaizkigu geure burua bertan begiratzera ausartzen garenetan. Txitxarra kexu da, baina berdin beharko genuke guztiok: “Lan egitea patua balitz bezala!”. Haren aldarria egin beharko genuke gure lelo: “Kantatzea bizitzan sinestea eta heriotza gainditzea dela”. Eta orain artekoak gutxi balira gainera, Miura zezenak eskainiko digu zezenketak benetan maite ditugunok beti amestu dugun korrida: torea-tzailea adarkatua suertatzen dena.

Piztiak bildumak, 1940an lehen aldiz argitaratua, askoren ustez mugarrira ezarri zuen Portugalgo ipuingintzan. Pertsonalki iruditutako gogoangarri. Eta, ondorioz, harrigarria nolaz ez duen Torgak gurean izan itzulpen gehiago, pitxi honen ondotik, beste batzuek izan duten moduan. Montorio berriz —eta bide batez, itzulpena da kategorikoa—: aje zaharra, zoritxarrez, portugesezko literatura urrunekotzat jotzearena. *Piztiak* dugu, behintzat, beste gaixotasun gaiztoagoren baten aldean, luso-patian erortzeko modukoa. Eta azkenerako, ondorio gisara: ai, erreparatuko bagenio gauari, egunari, eguzkiaren distirari, erreparatuko bagenie Miguel Torgak egin bezala piztia bat eta bakoitzari. Ipuin liburu honen moduko literatura gozagarri gehiago izango genuke hartara, eta besterik ez bada. ■

Aritz Galarraga



1

irakurri

2

hautatu

3

erabili

4

eman iritzia

Inozentziaren edabe magikoa

Lehenengo pausoak. Belarmiñak

Autoekoizpena, 2014.
belarmi-ak.bandcamp.com

AEBETAN oso ohikoa da iraganean hardcorea zein bestelako doinu gogorragoak landu izan dituzten musikariek gaur egun power-popa edo kasu gehienetan sustrauidun musika egiten ari-tzea. Sustrauidun musika aipatzean esan nahi dut bluesa edo amerikarra, azken hau country modernoagoa. Galdetu, bestela, iaz Red Kross ikustera joan ziren hardcorezale askori; edo erreparatu 'americana' deiturikoaren pean dabil-tzan askoren zuhaitz genealogikoei, besteak beste.

Bestalde, egia da musikari askok minimalis-mora ere jotzen dutela gero eta gehiago; kan-tuak ahalik eta biluzien idatzi eta interpretatze-ra. Horra hor, hurbileko adibide diren Eddie Spaghet-ti, Supersuckersekoa, Nick Oliveri zein Iñigo Cabeza-fuego, besteak beste. Joseba Irazokiren adibideak ez digu balio; bere bakarkako proiektuan biluztu baino, sorgindu egiten baita.

Belarmiñak proiektu berriaren atzean Joxi Ubeda eta Iker Lopez tolosarrak daude. Lehen inguruotako hardcorearen aintzindari Tortura Sistematika taldeko kide izateaz gain, Bukaera, Batzuk eta beste hainbat proiektu gordinetan aritutako beteranoa; eta bestea Lobo Electrico taldeari glam ukitua eman eta gitarra irudimenez jotzen zuena. Biak elkartuta, Joxi abesten eta gitarra akustikoarekin, eta Iker gitarra elektrikoarekin, abestiei koloreak gehitzen. Bitxikeria gisa, beraien lehenetariko emanaldia Tortura Sistematikak izan zuen behin-behineko berpiztean izan zen.

Lehenengo pausoak izeneko lanean sei kantu batu dituzte, guztiak pop eta folkaren artekoak, euskaraz eta Joxik abestuak, baina dagoeneko musikari gehiago dituzte inguruan. *Arteriak luzatu nahi dizkigute*-k



TXARLI GESTEIRA

Iki Poliki (gitarra akustikoa, gitarra elektrikoak, perkusioak eta ahotsak), Leire Zumeta (soinu diatonikoa eta ahotsak), eta Joxi Ubeda (ahotsa eta gitarra akustikoa). Perkusioaz Gorka Kanseko arduratzen da.

zabaltzen du lana. Joxiren kantatze sosegatuak guk geuk sortu dugun presondegia deskribatu ahala, Ikerrek oihartzun bereziko giroak sorrarazten ditu, eta tarteka eskusoinuak folk kutsu polita ematen dio. *Giro atseгина*-k ukitu are eta bereziagoa dauka, misteriotsuagoa. *Zabarrak berri*-k gorputz handiagoa dauka, Joxik indartsuago abesten du eta Ikerren gitarrak intriga puntua dauka. *Gero arte* melodikoagoa da, jostariagoa eta bluesa tartean bada ere, barren-barre-nean The Clash hurbil dabilela esango nuke. *Hain da estua*-rekin minimalismora bueltatzen dira berriro eta haztearen misterioa deskubritzearekin bat bossa zipriztinak ageri dira. Lana ixten duen *Neketsua*-n Ikerrek askatasun handiagoa hartu du eta gitarra joko-ak batzutan psikodeliarantz biratzen du. Natura, haur-tzarroa, inozentzia eta biziraupenetik daukaten kantu hauek Will Oldham, Txuma Muruga-rreren, King Loser eta Igor Arzuaga izan ditzakete familia artean. ■

Iker Barandiaran



Ogiaren egia

Galparsoro
OKINDEGIA

Ogi biologikoak

Harri erro-tan
xehe-tutako
irinarekin
egindako
ogiak

Orantza ogiak


Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074
www.galparsorookindegia.eu

CAMPOS

ETA

Jauid de Jorge

Gurutzegrama



Sudokuak

Erraza

	5	4			6			1
		9	8					6
		6		9	1	3		8
5	3		7			4		
	9	1	3		5	7	8	
	7			9		3	5	
1		3	5	6		8		
7				4	6			
9			1			5	2	

Zaila

3			9			1		
				5				
2			6			8	9	
9		3			2		4	
			3	6				
2		5			7		9	
9	4		2				6	
			6					
	1			4			7	

Ezker-eskuin:

1. Eratu, ekoitzi. Animalia basatiak hezten dituen. 2. Zutitzeko gai dena. Dago (alderantziz). 3. Garai, denbora. Urtebeteko txahal. 4. Upak egiten dituen. Azukre-kanaberaren destilazioz lortutako edari. 5. **Argazkian**. Urrats. 6. Errenkada, lerro. Armadun, iskiluz hornitua. 7. Larruazaleko gorriune bizi. Inude. 8. Salbu. Burdina lantzen zen lantegia (pluralean).

Goitik behera:

1. Ezaguera. 2. Ibilgailuen atal biribila. 3. Irato. 4. Naizen hau. Altuak, garaiak. 5. Narrasti izena. 6. Hornidura. Banka Burtsak. 7. Abagune, aukera. Sos. 8. Altxor. 9. Pilota jokoa (pluralean). 10. Bibliaren arabera, Lurreko paradisua. Landare mota. 11. Egitasmo. 12. Herri edo hiri bateko etxe multzo, auzune. 13. Munizipal. 14. Txakurraren usaimena. 15. Egokiak.

Kike Amonarrizen umorea

Obama eta Putin

Izan zuten azken bileran haxe konpetentea dela, baina ez dakit aitortu omen zion Barack Obama nor den.

— Arazo larri bat aitortuko dizut. Inguruan 50 aholkulari militar dauzkat. Badakit horien arteko bat espioia dela, baina ez dakit nor den.

— Nik ere antzeko arazoa daukat—erantzun zion Putinek—: inguruan 50 aholkulari militar dauzkat. Badakit horien arteko bat



Soluzioak

9	6	8	1	7	3	5	2	4
7	2	5	8	4	6	1	3	
1	4	3	5	6	2	8	9	7
4	8	7	6	2	9	1	3	5
6	1	3	4	5	7	8	2	
5	3	2	7	1	8	4	6	
3	1	9	8	5	7	2	4	6
8	5	4	2	3	6	9	7	1

Erraza

6	3	1	8	5	4	9	2	7
7	8	2	6	3	9	5	1	4
5	9	4	7	2	1	3	8	6
1	2	6	5	4	8	7	3	9
4	7	8	3	9	6	2	5	1
9	5	3	1	7	2	6	4	8
2	1	7	4	6	3	8	9	5
8	6	9	2	1	5	4	7	3
3	4	5	9	8	7	1	6	2

Zaila

Ezker-eskuin: 1. Egin, Hezle 2. Zuntz, Ad. 3. Aro, Arakce 4. Upagin, Ron 5. Piramida, Pauso 6. Iara, Isklidun 7. Zantbro, Hazarna 8. Ezk, Burdinola.
Goitik behera: 1. Ezapide 2. Gurpil 3. Itorazti 4. Ni, Garak 5. Kaiman 6. Horni, BB 7. Era, Diru 8. Tresor 9. Laxoak 10. Eden, Iht 11. Plan 12. Auzo 13. Udai 14. Suma 15. Onak.

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Neurria: 84,1 x 59,4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.

Onddoak elikagai... eta arma

DAVID SILVERMAN



Aflatoxina toxinare 22.000 litro atzeman zituzten Irakeko gordailuetan.

duenez, onddoetan oinarritutako arma biologiko asko dago, gerretan erabiliak izan direnak eta erabiltzen direnak.

Vietnamgo gerran AEBek eta SESBk esperimentu gisa erabili zituztelako susmoa dago; milaka pertsona hil omen ziren modu horretan. Irakeko gordailuetan, berriz, 22.000 litro aflatoxina aurkitu zituzten mende-baldeko indar militarrek 1990ean, herrialdea inbaditu eta gero. *Aspergillus* generoko onddoek sortutako toxina hori Scud misiletan kokatuz gero, misilak jotako lurretan uztak eta animaliak kutsatzen ditu, eta haien bidez gizakiarengana iristen da. ■



EAEko clusterrak, aldi berean eredugarri eta eztabaidagarri

COBKEBAASK



Confebasken eta hainbat clusterren arteko bilera.

EAEn urteak daramatzate clusterrek lanean, eta ekonomiaren hainbat sektoretan "botere faktiko" izatera ailegatu dira. Azken urteotan asko ugaltu dira, eta ugalketak arazoak ekarri ditu. Askok izateko indarren dispersioa ekar dezake neurri batean, baina gutxi izateak ekonomiak behar duen malgutasunaren aurkako politikak eragin ditzake. Zaila benetan, oreka lortzea! ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Nola islatzen diren emozioak gorputzean

Egoera emozionalak gure gorputzeko energia fluxuetan eta organoen egoeretan aldaketak eragiten dituela badakigu. Azken urte hauetan egindako ikerketa bat emozioen eragina hobeto ulertzen ahalegindu da, eta horri esker errazagoa izango da disfuntzioetarako tratamendu egokiak aurkitzea.

ttiki.com/86646

(Ingeleseaz)

Lurraren magnetismoa aldakorra da

Iparorratzak Ipar Poloa adierazten du, baina Ipar poloa Antartidaren gainean kokatu izan da aitzinean; hau da, Lurraren magnetismoa aldakorra da, eta horren zergatia misterioa da. Gaiak badu garrantzirik; besteak beste, magnetismoak espaziotik datozen izpiez babesten gaituelako.

ttiki.com/86647

(Gaztelaniaz)

Enpresa batek fusio nuklear erreaktorea iragarri du bost urte barrurako

Lockheed Martin enpresa estatubatuar ospetsuak adierazi berri duenez, bost urte barru kamioi baten tamaina edukiko duen fusiozko erreaktore bat eraikita izango du. Haren bidez Martera hilabete bateko bidaia egiterik egongo da, esan dutenez.


ttiki.com/86648

(Frantsesez)

Zuraidetik Txinara

JEAN BAPTISTE DUHALDE *Xilbar* Zuraiden jaio zen, 1854ko ekainean, eta handik hirurogeita hamalau garren ekainean hil zen, Ezpeletan. Pilotaria zen. Eta ez nolanahikoa. Ekainean hil, eta abuztuan, Ezpeletako plazan, haren irudia brontzez azaltzen duen eskultura landatu zuten, Pablo Tillacek egina. Nazioartean ere ezaguna zen, Buenos Aires aldean galdetu! Haren joko finak makina bat hamaiketaketak berriketaldiak osatu zituen. Joko garbian eta errebotean aritzen zen. Joko garbi motxean agian ez, baina errebotean haren pilotak ezagutuko zituen, bai, plazetako platanoak (*Platanus x hispanica*).

Jean Baptiste Duhalde Azkainen jaio zen, 1674ko otsailaren lehenean, eta Paris handian hil, 1743ko abuztuaren hemezortzian. Jesuita zen. Lau liburukiz osatutako liburu sonatu bat idatzi zuen 1735ean, *Description de la Chine et de la Tartarie chinoise*. Sekula izan gabea zen Txinan, baina lagundiaren aldizkari baten arduraduna izanik, hango jesulagunek bidaltzen zuten




Ezkerrean, Jean Baptiste Duhaldek (1674-1743) idatzitako *Description de la Chine et de la Tartarie chinoise* liburuaren ingelesezko edizioa. Eskuinean, *Duhaldea* generoko ale bat.



informazioa bere eskuetatik igarotzen zen. Ikaragarritzko hautsak harrotu zituen liburuak, eta Txinarekiko grina puztu zuen. Voltairek, 1751n idatzi zuen Luis XIV.a erregearen mendeko idazleen katalogoan, honela loriatu zuen: "Paristik bertatik, txinatarrek ezagutu ere egin gabe, bere lagunak idazkietatik abiatuta munduan eman den Txinaren deskribapen zabalena eta onena idatzi du". Hainbestearinoko fama hartu zuen, ze paristarrek han jaioa dela baitiote. Jean Elizalde Zerbitzari euskaltzainak, 1928-1957 artean idatzitako *Azkaine gure sorterrria* zorionekoan, Jean Baptiste Uhaldeko semea zela dakar, baina,

inondik ere, Txinan sekula izan ez zelako jokoaren berririk gabe, honela idatzi zuen: "Uhaldeko seme zen Duhalde handia, Xinan arimaketan karrat ibilia. Aipamena utzi du mende orotako...". Jean Baptiste hau hil eta mende betera, artean, bere sona ur gaineko bitsetan zebilen. 1836an Augustin Pyrame de Candolle botanikari handiak Txinan topatutako landare ezezagun bati *Duhaldea chinensis* izena jarri zion, haren oroigarri. Harrezkero, Asia aldeko landare genero oso batek *Duhaldea* izen euskalduna du. ■



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba. Astebetean lorontzi batean daukadan aloe veraren hostoak zuri eta guztiz mehetuta azaldu dira. Zer dela eta? Kaltetutako hostoak kendu beharko nituzke? Aldez aurretik eskerrik asko.

Maite Arrizabalaga (Mutriku)

Kaixo Maite. Nire iritziz apopiloak ditu landareak. Baten bat gustura aritu da kosk eta kosk. Zuritu egin da azala kendu eta mamia airera geratzean lehortu egin delako. Mehetu, berriz, koskalaria bazka izan delako. Begiratu ea barerik aurkitzen duzun inguruan: lorontziaren azpian, aldamenekoan, zirrikituren batean... Barraskiloa ere izan daiteke. ■



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Ontsa urkatzeko bidia

WASHINGTON, 1944KO ABENDUA. AEBetako armadak *Procedure for Military Executions* (Exekuzio militarretarako prozedura) izeneko liburuxka argitaratu zuen. Garai hartan heriotzara kondenatutako militarrek urkatu egiten zituzten AEBetan, eta armadako arduradunek exekuzioak ahalik eta azkarren eta garbien izatea nahi zuten; eskuliburuan bertan adierazten denez, gida osatzeko agindua Dwight D. Eisenhowerrek eman zuen, orduan armadako buru eta gerora NATOk lehen komandante nagusi eta AEBetako presidente izango zenak.

Baina arazorik gabeko exekuzio eragingarriak izateko kezka hura ez zen berria. Frantziar Iraultzan metodo azkarrena, eraginkorrena eta sufrimendu gutxien eragiten zuena omen zelako nagusitu zen gillotinarene erabilerak; “exekuzio metodorik errukitsuena” zela esaten zuten. Garbiena behintzat ez zen.

Urkatzek gillotinarene zipriztinak saihesteko aukera ematen zuen, baina horrek ez du esan nahi urka-bilurrak eragozpenik ez zekarrenik. Urkatzaileak prozeduraren oinarritzko ezaguerak izatea garrantzitsua zen: sokaren lodiera, erortzearen distantzia, kondenatuaren pisua... Bestela zigortuaren agonia luzatu zitekeen, eta borreroarena ere bai. Urkatzeen kasuistika zabalean, ez zen ohiz kanpokoak pisuak eta indarrak gaizki kalkulatu eta urka-bilurrak kondenatuari burua ebakitzea –horretarako gillotina bera hobea zen– edo, alderantziz, pisu nahikorik ez eta borreroa kondenatuaren hanketatik zintzilikatu behar izatea.

Horiek guztiak saihestea zen armadak argitaratutako 26 orrialdeko eskuliburuaren helburua. Korapilo berezia nola egin xehetasun osoz azaltzen da, urkabearen egitura ondo eraikitzeak datuak ematen dira: tamainak, lodierak, distantziak... irudi argigarriak lagunduta, Ikeako jarraibideak bileran. Baina horiek guztiak alferrikakoak ziren gorputzen erorketa taula ez bazuten aintzat hartzen. Taula horren arabera, 120 libra (55 kilogramo inguru) edo gutxiago pisatzen duten kondenatuek 8'1"ko (ia bi metro eta erdiko) erorketa behar dute




Figure 1. Execution gallows, post type and tripod type.




Figure 2. Execution gallows, tripod type and tripod type.

Urkatzek modu egokian egiteko AEBetako armadak 1944an argitaratutako eskuliburuaren 24 eta 26. orrialdeak. Irudiek urkabea nola muntatu eta urka-bilurra nola korapilatu azaltzen dute, hurrenez hurren.

lepoa bihurrituko dutela ziurtatzeko. 220 libratik gorakoentzat (100 kilogramo inguru) nahikoa da bost oineko jauzia, metro eta erdi pasatxo. Baina taulako datuak ez ziren hutsezinak eta borrero arduratsuak erorketaren distantzia doitzeko beste faktore batzuk ere hartuko zituen aintzat; esaterako, kondenatuaren gorpuzkera edo garapen muskularra.

Exekuzioak armadako borrero batek burutuko zituen. Borrero militarrik libre ez balego, borrero zibilek ordezkatu zezaketen, eta exekuzioaren tokiko ordainsaria jasoko zuten, beti ere exekuzioak 100 dolarreko saria gainditu gabe. Borrero zibilik ere ez balego komunitateko edozein kide izendatu zezaketen eskuliburuaren arabera, baldintza bakarra beteta: emozionalki egonkorra izatea. Esan gabe doa beste baldintza bat ere bete behar zuela: urkamendia muntatzeko jarraibideak ulertzea. ■



Arrastoak

Gizakiak eragindako leherketarik handiena



1961EKO URRIAREN 30EAN, Zembla Berria artxipelagoan, egungo Errusian, historiako eztanda nuklearrik handiena eragin zuten sobietarrek. Tsarraren Bonbak –hala esan zioten– proba-gunetik 4.000 metroko altueran egin zuen eztanda eta 50 megatoiko indarra askatu zuen, 1.400 aldiz Hirosimako eta Nagasakiko bonbek batera

askatutakoa. 100 kilometroko perimetroaren barruan harrapatutako guztiek 3. graduako erredurak izan zituzten gutxienez. Eta hori, bonbaren ahalmena erdian utzi arren. Izan ere, hasierako diseinuak 100 megatoira iristeko aukera ematen zuen, baina potentzia murriztea erabaki zuten “arrazoi ekologikoak” medio. ■

«Hizkuntza asko hitz egiten diren tokian zergatik eman behar diogu leku berezia gaztelaniari?»

Aski ezaguna da Carme Junyent (Masquefa, 1955), Euskal Herrian hizkuntza munduan. Vilaweb agerkari digitalak elkarrizketa mardula egin dio, eta orriotara hainbat pasarte ekarri dugu euskaratuta. Independentziak ez duela zertan katalana salbatu esan digu, eta gaztelania-katalana bikotea baztertu eta Herrialde Katalanetan milaka lagunek hitz egiten dituzten beste hizkuntzei begira hasteko garaia dela dio.

| ASSUMPCIÓ MARESMA, JORDI BADIA |

Hizkuntza aniztasunaren apologia egiten duzu beti. Orain dela ehun urte Herrialde Katalanak elebakarrak ziren. Egoera hura txarra al zen?

Elebakartasuna zen orduko egoera, eta oso ondo zegoen. Baina orain dela ehun urte ez zegoen internetik, telebistarik, irratia lehen urratsak eman zituen. Ez zegoen gaur egun munduarekiko dugun komunikaziorik. Hizkuntza ordezkapen prozesuetan, hizkuntza menperatzailea datorrean ikus dezakegu nola eremu homogeenak, itxiak, sentikorrenak diren. Aldiz, hizkuntza menperatzaileak hizkuntza aniztasuna duenean parean erasoei hobeto eusten zaie. Pentsarazi beharko liguke. Soziolinguistika kanonikoak mundu homogeneo ideal hori marrazten dizu beti, eta ez zait hainbeste interesatzen soziolinguistika mota hori, zaurgarriago egiten zaituelako. Garai hartan elebakartasuna oso ondo zegoen. Orain bestelako egoerak ditugu eta ez badakigu ondo kudeatzen, hau da, ideal elebakarra badugu helburu, desagertzeko arrisku handia daukagu.

Teoria klasikoak dio bi hizkuntza harremanetan daudenean bi irtenbide daudela: ordezkapena edo hizkuntzak aurrera egitea.



“Ez ditut bateratu nahi independentziaren prozesua eta hizkuntzarena, erritmo desberdinak baitituzte”.

Kontua ez da teoria horrek ez duela balio, baizik eta teoria bat gehiago dela. Errealitateak esaten digu beti ordezkapena gertatzen dela. Nik ez dut normalizazio kasurik ezagutzen, bat bera ere ez, mundu osoan, historia osoan. Eta urteak daramatzat bila. Egonkor mantendu den ele biko komunita-

terik ez dut ezagutu, eta ezagutu ditudan guztiek hizkuntza ordezkakuta bukatu dute.

Herrialde Katalanak orain ez al gara ele bikoak?

Zorionez ez. Elebitasunak desagertzera ginderamatzen. Aniztasun handiagoa egotea da interesgarria,



“Eredua hau da: katalana hizkuntza ardatza, eta gero, hemen hitz egiten diren hizkuntzei esker sortzen diren aukerak baliatu”.

baldin eta artikulatzen badakigu. Baina, orain oro har, aniztasuna gaztelaniak bereganatzen du. Elebitasun hori are arriskutsuagoa da. Hizkuntzak, katalana barne, birko-
katu behar direla onartzeko gai bagara, itxaropena izan dezakegu.

Elebitasuna eta diglosia kontzeptu zaharkituak al dira?

Beti esan dut: ez dut uste politikak hizkuntzak aldatuko dituenik. Jordi Solé y Camardonek —lagunak gara inondik ere— uste du independentziak katalanaren egoera konpontzeko balioko duela eta nik ezetz esaten diot. Horretan sinesten badugu oso gaizki daukagu, zeren politika oso eraginkorra izan da hizkuntzak hiltzeko, eta ez haiek berpizteko. Israelen adibidea azaleratzen da beti, errepika ezina da. Aurrera egin nahi badugu, egiaz hizkuntzak bizirautea nahi badugu, eredu berriak bilatu behar ditugu.

Hiztunen arteko loturetan gehiago sakontzea proposatzen duzu.

Ohartzen zara hizkuntza asko galdu direla hiztun komunitateen arteko komunikazio bideak aldatu direlako? Eta hizkuntza berreskuratu nahi izan denean, ez dira saiatu sare hori berrosatzen, baizik eta hizkuntza jakin bat, hizkuntza isolatua, berreskuratzen saiatu dira. Berrit diot, ez da bat bera ere

berreskuratzen. Kontua sarea berriz jostea edo berria egitea da. Ez diot zentzu handirik hartzen “onik atera dezagun katalana” esateari, katalana hitz egiten den lurralde guztietan zer gertatzen den ahazten badugu. Katalanez bikain hitz egiten duen amazighari gaztelaniaz hitz egingo diote, jendeari horixe sartu zaiolako kaskezurrean: kanpoko delat uste dugunari gaztelaniaz egiten diogu, hizkuntza ez-markatuan. Sare hori aireztatu behar da eta harremanak aldatu.

“Katalanez bikain hitz egiten duen amazighari gaztelaniaz hitz egingo diote, jendeari horixe sartu zaiolako kaskezurrean: kanpoko delat uste dugunari gaztelaniaz egiten diogu, hizkuntza ez-markatuan”

Unibertsitateak bultza dezake pentsaera aldaketa?

Bai, baina ez dakit oso garbi daukan. Denok ingelesari begira gaude. Hirueletasuna eleantiztasunaren gorenari iruditzen zaigu: ingelesa,

gaztelania eta katalana. Horrek ez du ezer aldatzen.

Aldaketa politikariek ez badute egiten nork sustatu behar du?

Jendeak. Nola iritsi jendearengana? Politikarien bidez? Begira, ondoko gertaerak dena azaltzen du. Frantkismoan orain baino gehiago hitz egiten zen katalana, ezta? Politika aurka daukazu eta hizkuntza aurrera doa..., eta teoriarik, politika zure alde izan duzunean hizkuntzak atzera egin du. Paradoxak pentsarazi beharko liguke. Ziurrenik politikariak beharko ditugu gizarte dinamizatzeko, baina nik uste dut goitik datozen gauzek, hizkuntza kontuetan, gutxiespena eragiten dutela. Horrelako adibide gehiago daude. Guaranieran erreakzio hori deskribatu da, baita maorieran ere. Adibide horiek jartzen ditudanean jendeak uste du hirugarren mundukoak direla eta ez digula eragiten. Baina hiztunak berdinak gara toki guztietan.

Hizkuntza hilko den herrialde independentea izatea gerta liteke?

Bai, baina ez dugu utzi behar hori gerta dadin. Horregatik, ez ditut bateratu nahi independentziaren prozesua eta hizkuntzarena, erritmo desberdinak baitituzte. Independentziaren prozesua egun batek besterakoa izan daiteke. Bat-batean gauzak asko aldatu dira. Hizkuntzarekin kontuak ez dira horrela gertatzen.

ERCKo presidente Oriol Junquerasek gaztelania ofiziala izango dela dio. Zer iritzi duzu?

Hauteskunderik begira uler nezake aukera hori, baina horrela ere ez dut ulertzen. Irakurri diodan azken artikuluan *La llengua dels meus amics, de la meua gent*, nepotista iruditzen zait. Nire lagunak eta nire jendeak hizkuntza asko hitz egiten dituzte: beraz, ez dago hizkuntza bakarra. Eta katalanari zer gertatzen zaio? Ez da zure jendearen hizkuntza? Hizkuntza asko hitz egiten diren tokian zergatik eman behar diogu leku berezia bati? Ez dut ulertzen, inondik begiratuta ere. Historialari izanda, ikuspegi historikoa izan beharko luke, eta berak irudikatzen

“Ez dakit handiegia botako dudan, baina derrigorrez eskolan gaztelania ikasi beharrik ez dago. Beste hizkuntza batzuk ikas daitezke. Bertakoa katalana da. Bestelako bideak jorra daitezke. Erromaniko jarraitua sustatu daiteke”

duena gertatuko balitz gaztelaniak katalana ordezkatzuko du. Ez dut ulertzen, eta gainera uste dut ez duela boto gehiago lortuko. Boto gehiago irabaz ditzakezu denak konpromisoa hartzera behartuko dituzun planteamendu bati esker. Hemen gehien hitz egiten diren hizkuntzetako hiztunak behar ditugu, hizkuntza aniztasuna zaindu nahi badugu. Haien konpromisoa behar dugu, eta ez dut zalantzarik gehienena badugula. Beraz, hori artikulatzeko aukerak sor ditzagun. Zergatik izan behar dugu talde zehatz batekin jokaera berezia? Haien ustez, gehiengoak dira, eta egiazki ez da hainbestearino. Bestalde, gaztelania hizpide denean, gaztelania bakarrari buruz hitz egiten da, eta asko daude.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza bukatuta, denek katalana eta gaztelania menperatu behar al dituzte?

Eta hizkuntza gehiago, eta ez derrigorrez ingelesa. Ez dakit handiegia botako dudan, baina derrigorrez gaztelania izan beharrik ere ez dago. Beste hizkuntza batzuk ikas daitezke. Bertakoa katalana da. Bestelako bideak jorra daitezke. Erromaniko jarraitua sustatu daiteke. Orain, aukera horiek denak ingelesagatik desagertzen dira. Ikasleen familietako hizkuntzak bultzatu daitezke. Denak ezin da, baina asko bai, gizarteak behar ditu.

Azalduko hobeto?

Katalunian 40 bat hizkuntza daude, zeinak hitzun kopurua-gatik bakarrik babestea mereziko lukeen. Gaur egun, diru denak xahutzen ditugu hizkuntza eskolak ordaintzen, ez dakit-zer ikasi nahi dugulako. Baina gure artean dauzkagu txinera, errusiera, arabiera... Ziurrenik elkarbizitzarako balioko liguke eta hainbat hiztun komunitateren jakintza jasoko genuke. Aniztasuna artikulatzeko modu bat litzateke. Eredua hau da: katalana hizkuntza ardatza, eta gero, hemen hitz egiten diren hizkuntzei esker sortzen diren aukerak baliatu.

Laburbilduz, etorkizuneko Kataluniako Estatu berriko presidenteari hiru aholku emango al zenizkioke?

Erokeriak esateko gogoia ematen dit, bat ala beste esan, inoiz ez naute kontuan hartuko [barrez]. Lehenengoz, Hizkuntza Politikako zuzendaritza orokorra kenduko nuke. Hizkuntza denena da eta denek hartu behar dute konpromisoa. Gotorlekuan edukita, besteek bere ez egitea lortu da. Osasun edo Industria Sailari berdin die katalana, txokoa dagoen zerbait baita. Bigarrena, jendea adoretzeko moduak bilatu. Ezinbestekoa da. Eta batik bat elkarbizitza, partekatzea eta ilusioa sustatu. Onartu behar da, azkenean lortzen badugu, denon kontua izango dela, ez katalan hiztunona bakarrik. Hirugarrena, gutxienez, gauza guztiek katalanez funtzionatzeko baliabideak ezarri. Murrizketak ez ditzatela katalanek izan. Eta murrizketak dituztenei baliabide guztiak eskaini: itzuli egin behar bada, pazientzia eduki behar bada... beharrezko guztia eskaini beharko genuke. Garbi gera dadila ordea, herrialde honetako hizkuntza katalana dela eta lurralde zati batean okzitaniera. ■



EUSKAL
MAKILA

OHORE EGITEKO

Gaztaina / Larrua

Mizpira / Alpaka

Mizpira / Zilarra

Mizpira / Larrua

Eskaerak:

© 943 371 545
denda@argia.eus
www.argia.eus/denda/makilak

JESUS MONZON REPARAZ

Frankismoaren kontrako eraso handiena gidatu zuen komunista nafarra

Pirinioetako Aran haranean barrena 3.000 gerrillari sartu ziren 1944ko urrian, behin-behineko gobernu errepublikarra ezartzeko asmoz. Erasoa Jesus Monzon Reparazek (Iruñea, 1910-1973) diseinatu eta gidatu zuen, eta garesti ordaindu zuen erabakia.

| KOLDO AZKUNE ETXABARRI |

IRUÑEAN ez dago kalerik, ez kultur etxerik, ezta liburutegirik ere, bere izena daramanik. Are gehiago, nafarren artean gutxi dira gizon honen pasadizoak ezagutzen dituztenak. Halarik ere, Iruñean sortutako komunista honek, Jesus Monzon Reparazek, gure historia garaikidearen norabidea aldatzeko giltza eskuan izan zuen. Berari esker mamitu zen diktadurak iraun bitartean Francoren aurka burututako erasorik nabarmenena: Aran bailarako inbasioa. Oraindik argitzeko dauden arrazoiengatik, ekimenak huts egin zuen, eta Francoren erregimena eta Santiago Carrillo buru zuen komunisten zuzendaritza bere kontra oldartu ziren.

Adiskideen arteko ituna

Erraz asko, Jesus Monzon abentura-eleberri baten protagonista izan zitekeen. Manuel Martorell (Elizondo, 1953) historialari eta kazetari nafarra izan da akzio-gizon honen biografia gorabeheratsua sakontasunez aztertu duen ikerlari bakanetarikoa. Berarekin Gaztelu Plazan bildu gara, Monzonen ibilbidean hil ala biziko garrantzia izanzen zuen kokagunean: “Iruñeak –dio Martorellek–

40.000 biztanle inguru izanzen zituen orduan, egun Tuterak dituen. Suposatu daitekeenez, garai horretan gai politikoetan esku hartzen zuten gazte gehienek elkar eza-gutuko zuten. Bada, gazte horiek alor pertsonala eta afektiboa ideia politikoen gainetik jartzeko ahalmena izan zuten”.



Jesus Monzonen gerraosteko irudia. Alderdi Komunistaren berregituraketa bere gain hartu zuen.

Baieztapen hau egiten duenean, Martorellek ideologia ezberdineko Iruñeko zenbait gaztek adostu zuten akordio batez dihardu. Antza denez, elkarri laguntzeko hitza eman zieten artean Jesus Monzon bera, Tomas Garicano Goñi abokatu eta militarra, Ignacio Usechi errepublikazalea, CEDAko kide Ignacio Ruiz de Galarreta edota Estanislao Aranzadi abokatu abertzalea zeuden, besteak beste. Akordio honen funtsa honakoa zen: hastear zegoen gerra zeinek irabaziko zuten bazter utzita, eta gertatua gertatuta, arriskuan zegoenari laguntza emateko konpromisoa hartzen zuten. Martorellen aburuz erabaki honen giblean zeudenek “jarrera intelektual gorena” erakutsi zuten: “Maiz, arrazoi politikoengatik adiskideak gal ditzakezu, eta, paradoxikoki, denborak aurrera egin ahala, ezadostasuna eragin zuen gaiarekiko ikuspuntua aldatu dezakete alderdi politikoek. Noski, politika oso garrantzitsua da, eta garai horretan gertatzen ari zena, oso larria; baina gazte horiek adiskidetasunari eusteko beharra ikusi zuten, gauzak nola bukatuko ote ziren ez baitzekiten”.

Kazetari nafarrari karlisten mugimenduari buruzko ikerketa batean buru-belarri zebi-



Manuel Martorell historialariak sakon ikertu du Jesus Monzonen biografia. 2000. urtean *Jesus Monzon, el líder comunista olvidado por la historia* idatzi zuen eta liburu hori oinarri hartuta 2012an dokumentala egin zuten, Enric Canalsek gidatuta. Eskuinean, Domingo Malagon margolari eta faltsifikatzaile ezagunak Arango bailarako inbasioari ekiteko prestatu zuen baimen agiria.

lela piztu zitzaion Monzonen iragana ikertzeko grina. Bere begietatik pasatu ziren milaka eta milaka orrialdeen artean, pasadizo bat egin zitzaion deigarrien. Honetan protagonista, Jaime Ignacio del Burgo politikari nafarraren aita: “1936ko uztailaren 19an, Jesus Monzon Iruñeko Carlos III.a hiribideko atari batean ezkututzen ikusi zuen. Del Burgok, nahita, ez zuen Monzon salatu”.

Gerra hasi baino lehen, Zabalgunearen eraikuntza eta Nafarroako trenbide berrien lanen arrimura, Errotxapea bezalako auzoetan Iruñeko ezkerreko mugimendua gorpuztuz zihoan, eta Monzon, Madrilén ikasketak bukatu eta berehala, mugimendu honen buruzagi bilakatu zen. Gerra hasita, Iruñea utzi eta zenbait hiritan gobernu ordezkariaren kargua bete zuen, harik eta nazionalen garaipenarekin Alacanten abioia hartu eta, Dolores Ibarrurirekin batera, Oranera (Aljeria) ihes egin zuen arte.

Urte horietan guztietan ez zen adiskideen arteko fabore-katea eten. Fraide kaputxinoz jantzita, Monzoni frankisten esku zegoen Iruñetik mugaz bestaldera ihes egiten lagundu zioten. Eta aldrebes, Alacanteko gobernu ordezkaria zelarik, Monzonnek Antonio Lizarzari —erreketeen sortzaile leitzarar— Valentziatik ateratzeko lagundu zion.

Deserria

Bigarren Mundu Gerra hasi zenetik 75 urte bete berri dira. Borrokak faxismoaren porrota ekarri zuen. Honekin batera Franco diktadorea boteretik kentzeko itxaropenak indarra hartu zuen. Jesus Monzonek Alderdi Komunistaren berregituraketaren ardura bere gain hartu eta gero, sortu berria zen egoerari probetxua atera nahirik, Val d’Aran (Leida) inbaditzeko plana zirriborratu zuen. Frantziar aliatuekin batera borrokatu zuten milaka gerrillarik isolaturiko bailara hori hartuko zuten, eta penintsulan matxinadaren hazia ereingo zuten, segidan aliatuen laguntza jaso ahal izateko.

Monzon sinetsita zegoen Euskal Herrian eta Katalunian karlista ugarik ez zutela Franco begi onez ikusten

Alderdi Komunistako kide gehienek uste zutenaren kontra, Monzonek diferentziak zekuskien karlista eta faxisten ideien artean. Sinetsita zegoen Euskal Herrian eta Katalunian karlista ugarik ez zutela Franco begi onez ikusten: “Monzonentzat —mintzo da Martorell— II. Mundu Gerraren akaberak aukera ezin

hobea eskaintzen zuen, faxismoa menderatu zuten herrialdeek frankismoaren kontrako mugimendurekin bat egin zezaten. Alabaina, mugimendu honek arrakasta izateko, garaileen demokrazia irizpideekin uztartzea derrigorrezkoa zen. Sortuko zen batasun gobernu berrian Erresuma Batuekin bat zetozen karlistak egonen ziren, adibidez, komunista eta anarkistekin batera. Almudena Grandes idazleak dioen bezala, aliatuek beste modu batean jokatu izanen zuten, laxoeriarik gabe, Arango bailaran orduko gizartearen aniztasuna jasoko zuen gobernu bat osatu izan balitz”.

1944ko inbasioaren afera, oraindik, itxi gabeko kapitulu bat da. Argi dagoena zera da: Jesus Monzon ostrazismora zigortu zutela, eta Carrillok porrota buruzagitza bereganatzeko eta Monzonen zaleak garbitzeko baliatu zuela. Gerrillariak Arango bailaratik atzera egin eta gutxira, Carrillok Monzoni deitu zion, Okzitaniako Tolosan elkartu asmoz. Monzonek, baina, Bartzelonan geldialdi bat egin zuen. Erabaki horri esker, ziurren, lortu zuen bizirik jarraitzea, halakoetan deitzen zituztenak usu ez baitziren hitzordura iristen, alderdikideek beraiek akabatuta.

Bartzelonako polizia PSUC alderdiko gerrillariei sostengu ematen zien Joventut Combatent talde-

Aran bailarako konexio nafarra?

JESUS MONZONEN bizitza gutxi ezagutzen badute, are ezezagunagoa da Badostainen jaio-tako Uriz ahizpen jarduna. 1930eko hamarkadatik aurrera, Pepita eta Elisa Urizek hezkuntza sistemen aldaketa bultzatzeko eta haurren eskubi-deak sustatzeko lan beltza egin zuten. Sarrigurrengo Eskola Publikoak, bederen, Pepita Urizen izena eramanen du, Nafarroako Gobernuak izendapenari oniritzia ematen badio.

Bada, Manuel Martorell konbentzitua dago, Aran bailarako inbasioan, Pepita Urizek emani-ko informazioa erabakigarria izan zela: “Bi ahizpak Magisteritza Eskolako irakasleak ziren. Pepita Urizek *Batec* (taupada, katalanez) berrikuntza pedagogikoaren aldeko taldean parte hartu zuen, eta García Lorcak ezagutarazi zituen ‘misio pedagogikoetan’ aritu zen. 1933an eta 1934an Pepitak Lleidako iparraldean isolaturik zeuden herri gehienak bisitatu zituen Célestin Freineten teknika pedagogikoa zabaltzen. Eta Lleidako iparraldean zer dago? Aran bailara”.

Vichyren gobernu kolaborazionistaren eta alemaniarrek okupaturiko zonaldearen artean zatitua zegoen Frantzia, Uriz ahizpak Parisko Alderdi Komunista-tako nukleoan zebiltzan. Hauekin Manuel Azcarate politikariak kontaktatu zuen inoiz, bera bi aldean arteko lotura baitzen. Bat-batean, ahizpek Frantziako hegoaldera egin zuten: “Monzonek berak —dio Martorellek— 1944 urteko nortasun-agiria zeukan, Foixen



Ezker-eskuin, Pepita eta Elisa Uriz. Pedagogiaren alorrean lan handia egiteaz gain, frankismoaren kontrako erresistentzian nabarmendu ziren, eta dirudienez, Monzonek Arango bailarako eraso jotzeko giltzarri izan ziren.

egina, Pirinioetan. Zonalde horretan prestatu zuten Arango inbasioa. Bada, Parisen sarekada bat izan zela-eta, Uriz ahizpek Frantziako hegoaldera ihes egi-teko modua izan zuten. Eta ziur naiz inbasioa antola-tu zutenek zonaldeari buruzko informazio zehatza bilatu zutela, baita horretan Pepita Uriz ibili zela ere, Monzonekin batera. Zoritxarrez, oraino ezin izan da halakorik frogatu”.

ko kide baten etxean atxilotu zuen Monzon. Harritzekoa da gerra ostean, Arango inbasioa gidatu eta PCE Frantzia berregituratu eta gero, Jesus Monzonek Madril eta Bartzelonan klandestinitatean ibiltzeko erakutsi zuen adorea: “Madrilen harrapatzen zutena, hilabete batzuen buruan fusilatu egiten zuten —azaldu digu Martorellek—. Bihotza behar da gero! Manuel Vázquez Montalbán kazetariak esan zuen bezala, Monzon historiako ‘atleta morala’ izan zen. Bere burua arriskuan jarri zuen, ezer gutxi, edo ezer ere ez, irabazteko”.

Monzoni ez zioten heriotza-zigorra ezarri. Zenbait testigantzen arabera, Tomas Garicano Goñiren bitartekaritzari esker atera zen bizi-rik, besteak beste. Martorellek ere, 30 urteko espetxe-zigorren atzean bere lagun esku-hartzea antzema-ten du: “Gaztetako lagun horien artean askok ejertzitoko zerbitzu

juridikoan ziharduten. Eta derrigorez beraiek hariak mugitu behar izan zituzten, heriotza-zigorra saihestu ahal izateko. Beharbada, denbora aurrera egiten uzteko estrategia erabili zuten, baldintzak samurtu zitezen. *Maquisak* bizirik zirauen eta exe-

Harrigarria da gerraostean Monzonek Madril eta Bartzelonan klandestinitatean ibiltzeko erakutsi zuen adorea

kuzioak egon bazeuden, baina gerra bukatuta zegoen, eta erregimena, poliki-poliki, irekitzeko borondatea erakusten ari zen”.

Kartzelan 13 urte iraganda, lanera-ko atak erabat itxita, Monzonek Mexikora hegan egin zuen bere emaztearekin berriz biltzearen kariaz.


Frantziako deserrian Aurora Gómez Urrutiarekin bereizi bazen ere, libre gelditu eta gero berriz elkartu ziren. Monzon jada pertsona anonimoa zen, politikaren lehen lerrotik alden-dua. Gerora, alderdikide ugari historiaren kontaketa berarekin egindako bidegabekeria historikoa salatuko zuten, Manuel Azcaratek edo Jorge Semprunek, kasu.

Mexikotik bueltan, Mallorkan bizi eta gero, Iruñean aurkitu zuen heriotza nafarrak. Beritxito-seko hilerrian egin zitzaion hileta zibilean 30 lagun eskas elkartu ziren. Santiago Carrillok parte hartu zuen azkenetariko ekitaldi batean, Manuel Martorell Monzoni buruz galdetzeraz hurbildu zitzaion. Honen erantzuna lakonikoa izan zen: “Bai, horretaz hitz egin beharko litzateke”. Baina Carrillok hilobira eramanen zuen zekien guztia. ■



argia

ikus-entzunezkoen
EKOIZPENAK



Komunikazio ikuspegi orokorra, iraunkorra eta lankidetzan oinarritua

- Zuzeneko emisioak
- Ekitaldien grabazioak
- Promozio bideoak
- Dokumentalak
- Itzulpenak eta azpigitulazioak...

ARGIAko webgunearen eta sare sozialen bidez
zabalduko ditugu lanak

GURE AUDIENTZIA **ZURE ESKU**

Gure ezagutza eta gaitasun osoa,
profesionaltasunez eta prezio onean

10 urteko esperientzia bideogintzan
eta **1.200 bideo** baino gehiago ekoitziak

Informazio gehiago: 943 37 15 45 · ekoizpenak@argia.eus

Aldaketarako haizea inoiz baino indartsuagoa da

Borborka ari da Nafarroako sumendiaren azpiko laba, duela bi aste Nafarroako egoerari buruzko eztabaidan Legebiltzarrean argi ikusi zen moduan. Barcina guztien aurka izan zen ikusitakoaren titulua. 2012ko ekainean PSN gobernutik kanporatu zuen unetik eguneroko ogia da eta legealdiaren amaiera ere gero eta aldapatsuago egingo zaio UPNko gobernuari.

| XABIER LETONA |



PSNrik gabe Yolanda Barcina garaitzeko aukerak inoiz baino handiagoak dira eta oposizioa horretarako prestatzen ari da.

JOAN DEN ASTEAN Ezkerrak, PSNk eta Geroa Baik aurkeztu zuten Euskararen Legean aldaketa egiteko proposamena. Irailean Volkswageneko BEZarena eta Espainiako Ogasun Ministerioarekin izandako bilerak izan ziren. UPNk berak plazaratu zuen hezkuntzako liburuetan euskal doktrinatzeari deitzen duena salatuz edo lehenago ETBren debekua. Atzerago begira, ika-miken zerrenda ia amaigabea da: CANeko desagertpena eta bileretako dietak, ospitaleko sukaldeetako pribatizazioa, Kontuen Ganberak ateratako txostenak, 80 kilometroko AHT (Iruñerria-Castejon) isolatua, Nafarroako Ubidearen inbertsio erraldoiak, Los Arcoseko lasterketa zirkuitua, oraindik ireki gabe dagoen Reyno Arena pabiloia

(58 milioi euroko inbertsioa), San Ferminetako Museo proiektua, Nafarroako 45.000 langabetuak, Konstituzio Auzitegiak Legebiltzarreko legeei jarritako helegiteak...

Olatu horiek guztiak eta gehiago gainditu behar izan ditu Barcinak legealdian zehar, hainbatetan itolarrian. Laguntzarik ez etxetik kanpo eta etxe barruan ere estu. 2013ko martxoko UPNren kongresuan Barcina 76 botorekin gailendu zitzaion Alberto Catalan egungo Legebiltzarreko lehendakariari. Bitan geratu zen zatitua UPN eta oraindik ere horretan jarraitzen du. Miguel Sanz lehendakari ohiak argi gogorarazten dio labana txikiarekin zain dagoela: gogorragoa izan behar duzu Madrilgo helegiteekin; urrun-

du PPrengandik eta PSN erakarri; zaindu UGT eta CCOO... Lehia hor dago eta 2015eko udal hauteskundeetan emaitzen ondoren, odolak batera edo bestera egingo du, batez ere emaitzak txarrak badira.

PSNrik gabe irabazteko aukera

Azken hamarkadetan UPNren makulu izan den PSNren egoera ere oso estua da. Azken hiru hauteskundeetan oso emaitza urriak izan ditu: 51.000 boto 2011ko foru hauteskundeetan, 72.000 Espainiako orokorretan eta 31.000 europarretan. Urriaren 19an egindako primariak medio, PSNk dagoeneko hautatu du 2015eko bere hautagaia: sektore ofizialeko Maria Chivite senataria gailendu zitzaion sektore

Euskararen Legea, zatiketaren amaieraren norabidean

EZKERRAK, PSNk eta Geroa Baik Euskararen Legea aldatzeko proposamena egin dute Nafarroako Legebiltzarrean. Legearen 26. artikulua aldatuko da eta, funtsean, Nafarroako eremu ez euskalduneari euskarazko irakaskuntzari atea irekiko zaizkio, baldin eta ikasle kopuru zehatz batek hala eskatzen badu. Lege aldetik honek eremu ez euskalduneko egoera eremu mistoaren egoera berdinean utziko luke, hau da, gutxieneko eskaria baldin badago, euskarazko lerro bat irekitzen da. Eremu euskalduneari gobernua berak eskaini behar du hasieratik euskarazko eskaintza. Bildu eta Aralar-Nabai-ren ustez legeak ez du zonifikazioa hausten eta horregatik ez dute proposamena sinatu, baina lege aldaketa aurrera ateratzea ahalbidetuko dute.

Ikuspegi sinbolikotik urrats oso handia da Euskararen Legeari aldaketa hori egitea eta potentzialitate handikoa, funtsean euskal hezkuntzari atea zabaltzen dizkiolako Nafarroa osoan. Praktikoki nola eragingo duen ikusi behar orain, legearen garapena Gobernuaren esku geratuko baita. Pentsa liteke datoren urteetan UPNren gobernu batek garatu behar badu, emaitza ez dela oso oparoa izango. Nafarroan aldaketa eman eta bestelako gobernu batek egingo balu, garapen handiagoa izango luke, zalantzarik

gabe, atea zabaltzea giltzarri baita, baina askoz garrantzitsuagoa da gero bidea egitea.

Gobernu berri batek zonifikazioa bera hautsi behar luke, horrela hizkuntza eskubideen mailaketa desagerraraziz. Ez ekonomian, ez eskubide sozialetan, ez osasunean, ingurumenean... inongo esparrutan ez da Nafarroa zatika banatzen eskubideei dagokienez. Zergatik hizkuntzan? Bestelakoa da legearen garapena eta hizkuntza politikak tokian tokiko errealitate soziolinguistikoaren arabera garatzea, baina lehen, bigarren eta hirugarren mailako herritarrak sortzea?

Iruñeritik beherako lurraldeetan, oro har, urria da euskararen presentzia eta hainbat gunetan euskararen aurkakoa ere bai, inkesta soziolinguistikoek behin eta berriz agertu duten legez. Urtetik urtera, baina, kontrako jarrera gero eta murriztagoa da (%69tik %46ra 1991tik gaurdaino) eta aldeotasuna gero eta handiagoa. Bada lanik, beraz, mamuak uxatu eta euskara mehatxu baino altxor gisa erakusteko.

Nahiz eta egin beharreko aldaketa handiaren lehen zirrikitua besterik ez den, norabide egokian doa eta lege aldaketa gauzatzen denean aukera oso garrantzitsua irekiko zaie Nafarroako euskaltzale eta euskaldun askori. Basamortuan egarri larri dabilenari ur botila eskaintzea da.

kritikoko Amanda Acedori, %58-%41. Chivite aterako da, halaber, PSNko idazkari nagusi alderdiak abenduan egingo duen kongresuan. Hil ala biziko egoeran da PSN.

Datorren maiatzeko hauteskunde giroa gero eta goriago da Nafarroako politikan eta alderdietako zerrendaburuen aurkezpenei tantaka dator. Emakume izenak dira nagusi oraingoz. Yolanda Barcinak abutzu amaieran argitu zuen bera izango zela UPNko hautagaia. Uxue Bar-

kos izango da Geroa Baikoa. Maria Chivite PSNkoa eta Adolfo Araiz EH Bildukoa.

PPko hautagaia Ana Beltran izango da seguruenik, baldin eta alderdia bakarrik aurkeztzen bada, eta hori ez dago batere argi. UPNren eta PPren arteko harremana ez da ona, baina batetik, PPren emaitza oso txarra izan daiteke bakarrik aurkeztuz gero eta, bestetik, gobernu galtzeko egiazko aukerarekin elkarrekin aurkezteko oso ondo

neurtuko dute UPNn. Ez da erraza, ordea, jakitea egungo abagunean PPk botoak kenduko dizkion edo eman. Ezker Batuak eta Batzarrek osatzen duten Ezkerra koalizioak ez du oraindik argitu hautagaia nor izango den baina oso posible da 2011ko zerrendaburu Jose Miguel Nuñek errepikatzea. Podemosek ez du ofizialki erabaki aurkeztuko den ala ez, baina aurkeztuko da eta Fátima Frutosen izena entzun da zerrendaburu gisa joateko.



inguru
ABENTURA

- Abentura kirolak
- Ezkonurreko agurrak
- Familiarteko jarduerak
- Abentura bidalak
- Material tekniko alokairuak
- Eta askoz gehiago...

San Juan 18, Albeniz-Asparrena (Araba) - Tel. 635 748 948 - 635 748 947
www.inguruabentura.com - info@inguruabentura.com



TERMOMETROA • NAFARROA HAUTESKUNDEEI BEGIRA

Iragan Europako hauteskundeetan partehartzea %46koa izan zen, baina lehenengoz ikusi zen PSN gabeko oposizioak irabaz ditzakeela hauteskundeak eta gobernu akordioa lortu. Horretarako emaitzek eman behar dute lehenik eta ondoren EH Bildu, Geroa Bai, Ezkerra eta Podemos ados jarri beharko lirarteke. Eta bada galdera handi bat hemen: nor ote lehendakari gai kasu horretan Adolfo Araziz edo Uxue Barkos? Askok iritzi diote Araizek boto gehiago lortuta ere Barkosetik kontsentsua biltzeko erraztasun handiagoa lukeela. Barkosetik tiradizo handia du Nafarroan, bereziki Iruñerrian, baina boto kopuru aldetik orain arteko inkestek Araiz ematen diote lehentasuna. EH Bilduk ezker abertzaleko kide historiko bat hautatu du. Bere garaian jada Araizek ba zuen irudi zabala eta serioa, eta irudi hori sendotu egin du tafallarrak, are gehiago azken urte luzeak Sakanako mankomunitatean kudeatzaile lanean aritu denetik.

Podemos norengandik legoke gertuago gobernu osatzeko, EH Bildutik edo Geroa Baitik?

Estatu osoan moduan, Podemos indar handiz dator Nafarroan ere (20.000 boto Europako hauteskundeetan) eta bada hirugarren postua ematen dion inkestarik, UPN eta EH Bilduren ostean. Hala balitz, Podemos norengandik legoke gertuago gobernu osatzeko, EH Bildutik edo Geroa Baitik? Teorian EH Bildutik, baina zer esango du Podemosek Madrilen hilabete batzuetara Espainiako hauteskunde orokorrak direnean? Kinieletatik baztertzen bada ere, hor izango da PSN, eta gobernurik osatzekotan, errazago egingo luke UPNrekin oposizioarekin baino. Urte erdi falta da oraindik hauteskundeetarako eta botoek jarriko dute bakoitza bere tokian, hori izango da erabakigarriena oposi-

zioa edo gobernu nola eratuko den zehazterakoan.

1.513 milio euro buru gainean

Emaitzez gain, Madrilek iragarria du hurrengo gobernuan izango denak jasango duen zama astuna: Ogasun Ministerioak 1.513 milioi euro eskatzen dizkio Nafarroako Gobernuari –Barcinaren arabera 825– Volkswageneko BEZa dela eta. Aurtengo Nafarroako aurrekontua 3.837 milioi eurokoa da; 2015erako aurreikuspena 3.417 milioi eurokoa (hirugarren urtez luzatua izango da). Nafarroako zor publikoa 3.500 milioi eurokoa da eta egunero 320.000 euro ordainduko du 2015ean honen interesa. Madrilek dagoeneko ekin dio beldurraren estrategiari eta BEZaren gaiarekin argi adierazi dio balizko gobernu alternatiboari gainera datorkiona. Edozein kasutan, etorkizuna ez da samurra, baina aldaketarako haizea inoiz baino indartsuagoa da Nafarroan. Kale bultzada eta botoak behar dira orain eta, aritmetikak ematen badu, ondoren asmatu egin behar. ■



zientzia

azoka

bizi ikerketa!

elhuyar da

2014-2015

Zientzia Azokan parte hartuz gero:

- Ikerketan eta proiektu teknologikoetan jardungo dira gazteak
- Tokian egiten den ikerketaren berri izango dute, gertu-gertutik
- Gazteen arteko esperientzia-trukeak biziko dituzte
- Ikertzaileen lana lehen eskutik ezagutu ahal izango dute
- Kanpoko beste esperientzia batzuetan ere parte hartzeko aukera izango dute

Ikertzaile profesionalen aholkuarekin!

Zientzia Azoka ekimena gazteek garatutako proiektuen azoka da. Ikasturtean zehar, taldeka, gazteek erabakitzen duten gaiaren inguruan arituko dira lanean: galdetzen, ikertzen, diseinatzeko, erabakitzen, eta esperientzia berriak bizitzen.

Bidean, ikertzaile profesionalen laguntza jasotzeko aukera izango dute, abenturak eta bizipenak konpartitzeko, eta gazteen lana bideratzen laguntzeko.

Antolatzailea:

elhuyar
Zientzia

Babesleak:



Kolaboratzaileak:



Kontaktua:
zientzia-azoka.elhuyar.org
zientzia-azoka@elhuyar.com
[@zientziahezk](https://www.instagram.com/zientziahezk) · 943 36 30 40

@ASKETAGORRI



Ikastolen Elkarteak agerraldi jendetsua egin zuen joan den astean, Ziburuko Kaskarotenea ikastola babesteko. Azaroaren 8an manifestazioa egingo da Ziburuko herriko plazatik aterata. 4.300 euroko isuna ezarri diote ikastolari eraikina erabiltzen segitzeagatik, eta han jarraitzen badute jendarmeak bidaliko dituztela mehatxu egin diete.

Ertzaintzaren lehenengo Euskararen Erabilera Plana

2014-2017 URTEALDIRAKO plana da. Legebiltzarrean aurkeztu berri du Estefania Beltran de Heredia Segurtasun sailburuak, eta hark adierazi duenez, helburua polizia euskaldunagoa lortzea da eta lana bi hizkuntza ofizialetan egiteko gaitasuna izatea.

Gaur egun, 8.000 ertzainetatik 3.006k betetzen dute dagokien hizkuntza eskakizuna. 156 ertzainek daukate EGA maila egiaztatuta. Eusko Jaurlaritzaren asmoa, 2017rako 800 ertzain gehiagok euskaraz hitz egiteko gaitasuna izatea da. Horrek esan nahiko luke ertzainen

%47,5ek maila bateko edo besteko euskara gaitasuna izango lukeela.

Planaren asmoa euskara sustatzeko aurrekontua bikoiztea da, hizkuntza-eskakizuna lortzeko liberatutako ertzainen kopurua handitzea eta laguntza puntuala emateko trebatzaileak edukitzea.

Beltran de Herediak onartu du, gainerako administrazioak baino motelago aritu dela Ertzaintza euskalduntzean, eta errua ETArri egotzi dio. Hemendik aurrera euskalduntze abiada bizia espero beharko dugu beraz.

Bahea

Karmele Artetxek euskarazko produkzio zientifikoaz Berrian esanak:

“Azken lau hamarkadatan ibilbide arrakastatsua egin du. Halere, ezin gara jausi baikortasunean; zuhur ibili behar dugu. Izan ere, Ingumako datuek erakusten dutenaren arabera, 2002-2003tik hona, euskarazko produkzioa, urtero ekoizten dugun arren, motel-tzen ari da. Normalean, gero eta gehiago ekoiztea izan beharko luke joerak; hau da, egun urtean 400 euskarazko artikulu baditugu, hemendik hamar urtera 700 artikulu izan beharko genituzke.(...)”

Egia esan, ez dakit zein den arazoa. Dena den, nik uste dut ebaluazioan egon daitekeela giltzarria. Unibertsitatean dihardugunok ebaluazio atalak pasa behar izaten ditugu gure lanean jarraitzeko; besteak beste, gure curriculumea neurtzen dute. Ez dut nahikoa aztertu benetan hala den zehazteko, baina ebaluazio agentzia horiek ikertzaileak saritzeko erabiltzen dituzten irizpideen artean nazioarteko erdal produkzioa dago. Horrenbestez, euskarazkoak ez du inongo aitorpenik”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Jendarte solidario eta integratzailea sortu behar dugu

ARABAKO PP HAUTESKUNDEEI BEGIRAKO KANPAINA egiten ari da Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DBE) eta bizirauteko sen primarioenak erabili nahi ditu horretarako: lehenengo ni eta gero “besteak”. Hala, xenofobiaren haztegi arriskutsua elikatzen ari da. Hamarkadak igaro dira sektore abertzaleek gure herrira iristen ziren immigranteak “maketoak” eta “korearrak” zirela esanez diskriminatzen zituztenetik. 60ko hamarkadan, eta bereziki ezker abertzalean, Euskal Herri Langileak hitza sortu zen, eta onartu zen herri honen parte zirela ez soilik bertan jaioetakoak, baita Euskal Herrian bizi eta lan egiten dutenak ere. Immigranteen integratziorako apustua izan zen.

Euskal abertzaletasuna gehien kritikatu duen horrek, alderdi popularrak, gutxiengo batek immigranteekiko duen ezinegona aprobetxatu nahi du orain, herritarren eta jendartearen kontra doan kanpaina xenofobia abian jartzeko. Hala, amnesia kolek-

tiboa zabaldu nahi du, jendeak ahaztu dezan zeinek sortu, sustatu eta baliatu duen milaka laguni eragiten ari den ekonomia krisia, edota zein diren sistemaren iruzurgile handienak: Rato, Blesa, Barcenak, Fabra eta abar. Horiek guztiak PPkoak dira, eta ez honen guztia- ren benetako biktima diren immigranteak.

Euskal jendarteak Gasteizko Eskubide Sozialen Plataformaren lorratzari segi beharko lioke, sortu ahal izateko jendarte barneratzailea, kohezitzailea, anitza, diskriminaziorik gabea, eskubide unibertsalen jabe dena, solidarioa, bizigarria... Herri honek merezi duen jendarte erdua alegia. Eta eragile sozialek, erakundeek eta alderdi politikoek hauteskunde interesak albo batean utzi beharko lituzkete, bizikidetzat sustatuko duten politika sozial eta integratzaileak arduraz garatzeko ordua baita.

Juan Mari Arregi



Ebolaren mehatxua: sustraiak ekologian, adarrak geopolitikan

Urriaren 17ra arte 9.693 jende kutsatu eta horietatik 4.811 hil ostean, kutsatutako pertsonen kopurua hilabetero bikoizten duen Ebola izurritea bilakatu da munduko arazo nagusietakoa, etsai berri eta ezezagunak mehatxaturik sentitu direlako Europa eta Ipar Amerika. Barne segurtasun aferatzat antolatu dute Ebolaren kontrako borroka.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EBOLAK EZ DU KONSPIRAZIOEN beharrik bere hedatzea azaltzeko, mundu globalizatuak jakin behar zuen horrelako izurrite bat zabalduko zela goiz edo berandu. Ekosistema ezberdinetan biziz immunitate ahalmen ezberdinak dauzkaten populazioak nahasteak derrigor ekarri behar zuen. Hala ekarri zuen Erdi Aroan izurrite beltza, edo XVI. mendean Ameriketako biztanleria suntsituz europarrok han zabaldutako eritasun koktela, berdin XX. mende hasieran munduan milioika heriotza eragingo zituen “espainol” deitu gripea.

James C. McCann arkeologoak azaldu du asteotan denok izutzen gaituen Ebola hedatu dela mende bat lehenago gripe espainiarra bezalatsu: “Gripe espainiarraren mugimendua aztertzen baduzu, ohartuko zara garraio eta komunikabideetan barrena zabaldu zela. Garai hartan trenbideetan barrena. Afrikara baperez iritsi zen Sierra Leonara, ironia dirudi, gaur Ebolak eraso dion herrialdera”.

Afrikako nekazaritzan eta elikaduran berezitua dagoen McCannek esandakoak Amy Lawskoskyk bildu ditu Bostoneko unibertsitatearen webgunean: “*Battling Ebola: Is Human Activity to Blame?*” (Ebolaren kontra borrokan: Gizakiaren jarduerak al da erruduna?). McCannek

ulertzen du Ebolaren krisiari erantzun biomedikua eman nahi izatea, baina uste du beharrezkoa izango dela larrialdi hau kokatzea gizakiaren eta naturaren arteko harremanen aldaketetan.

1995ean Kongok jasan zuen Ebolaren eraso oso bortitza, hilkortasun tasa handi batekin, baina isolatutako su baten moduan itzali zen hura, sortu zen Kongoko oihan sakonean bertan. Aldiz, oraingoa oso bestelako ekosisteman piztu da izurria, Gineako baso hondatueta.

Aipatu izan da Ebolaren sorrera baso tropikalen suntsitzeari dagoela lotuta. McCannek pittin bat konplexuago ikusten du aferra: “Orain Ebola zabaldu da basoa aldaketan ari den lekuetan. Jende gehienak alde egin ostean, oihan zaharra suntsituta baso berria sortzen ari den leku horietan pertsonen harreman berriak dituzte ingurumenarekin. Nolabait alderatzeko, AEBetako hiri handien periferietan bizi garenek azeri eta mapatxe kaletartuekin dauzkagun antzera. Mendebaldeko Afrikan deforestazioa gertatu dela esatea sinplegia da, ingurumena ari da aldatzen”.

Trantsizioko ekosistemotan oihanez gain beste guztia ere aldatzen ari da. Alde batetik, hiritartzea masiboa da Afrikan ere, txabolategi ikaragarriak, lurraren artifizialtzea,

USNews agentziak banatutako argazkian, lehen planoan ageri dira AEBetako itsas armadako ingeniariak Liberiako Monrovia, 3.000 militarrentzako azpiegiturak antolatzen. Bigarren planoan lekuko langile eta herritarrak haien jarduerari begira. Ebolaren eraso hau baino bi urte lehenago, 2012ko uztailan, Office of Global Health Diplomacy (Mundu Mailako Osasunaren inguruko Diplomazia Bulegoa) estatu idazkaritza sortu zuen Barack Obamak, AEBek osasun arloan munduaren lidergoa bere gain hartu behar zuelakoan. Obamak hautua berretsi zuen joan den irailean NBEaren batzar nagusian: “AEBez landa beste inork ez dauka ahalmena eta erabakia mundua mugiarazteko Daeshen terroristen kontra, errusiarren erasoaren kontrako deia egiteko eta Ebola kontrolatu eta suntsitzeko. Horra zer lortu dezaketen AEBek munduaren erronka nagusiei aurre egiteko buruzagitza bere gain hartuta”.

kutsadura, eta abar. Gehi garraioen ugaritzea. Bestetik, Afrikako mendebaldeak azken hamarkadetan nozitu dituen gerrek krisi larrietan murgildu dituzte horko estatu eta administrazioak. Estatuak berek bezala osasun sistema publikoek porrota jo dute.

Orain aipatzen da jende gosetiak saguzarrak jatetik zabaldu dela Ebola, lehenago tximuen okelatik bezala. “Baina horiek ekologia mailako aldaketetan kokatu behar dira izurritea esplikatzeke. Malaria bera ere oihanetik zabaldu zen: basoan malariarekin bizi zirenek immunitatea garatuta zeukaten horrekiko baina immunizatu gabeko jendeekin topo egitean bihurtu zen izurrite. Ebola da orain kasu berria, baina badira beste gehiago gizakiaren ekologiarik loturik”.

Birusa, segurtasun aferra

Ulergarria denez, Europa eta Ipar Amerikako jendeak ez daude prest duela ehun urte gripe espainiarrarekin bezala naturak bere hautaketa egin dezan, milioika hilen artean bizirik geratuek immunitatea garatu dezaten. Gizakitik gizakira pasatzen baita. Gureganaino iristen ez direnez, ez digute hainbesteko alarmarik sortzen herrialde txiroetan orain arte Ebola baino hilgarriago suertatu diren eritasunek.



Joan den irailaren 18an Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluak ebatzi zuen Ebola dela “nazioarteko bakearentzako eta segurtasunarentzako mehatxua”. Bost hilabete lehenago egin zuen Munduko Osasun Erakundeak mobilizaziorako deia, Afrikari laguntzen hasi aurretik denbora alferrik galtzen utzita: lehen kasua 2013ko azaroan azaldua zen...

“Ebola, une affaire de sécurité nationale” titulatu kronika mamitsuan erakutsi du Philippe Leymairiek –*Le Monde Diplomatique*ren webgunean daukan *Défense en ligne* blogean– izurrite honek daukan garrantzia geopolitikoa.

Leymairieren hitzetan, Afrikan bertan ere zenbait ahots hasi da

salatzen Ebola arma geopolitikotzat erabiltzen dutela potentzia handiek, baliabide naturalez hain aberatsak diren lurrotan esku hartze eremuak zabaltzeko. *Jeune Afrique* hilabetekari moderatuak kezkatu idatzi du: “Ebola mundu mailako mehatxutzat hartzen baldin bada Afrikaren birkolonizazio militar eta osasungintzazkoa ekarriko du. (...) Ohartu zarete nola bere mintzaldian Barack Obama pasatu den [NBEaren biltzarreko mintzaldian] terrorismotik Ebolar, birus batetik bestera, ‘suntsitu’, ‘erauzi’, ‘munduarentzako lanjer’ eta holakoeekin?”.

Berandu bada ere alde askotatik bidali zaie laguntza Ebolak hankaz gora jarrita dauzkan Ginea, Liberia eta Sierra Leona. Aipagarriena,

NBEak berak hala zoriendu dituelako, Kubak eta Venezuelak igorritako laguntza, medikuak, botikak eta materiala. Frantziako Estatuak gerrako ospitale bat eramatea agindu du, Britainia Handiak beste bat, Munduko Bankua 350 milioi euro ematekoa zen, Europar Batasuna 100 milioi...

Baina, gainera, Obamak bere esku hartzea iragarri bezain laster, AEBek hiru mila militar igorri dituzte Liberiar, amerikarrek eskualde horretan finkatzea nahi duten nazioarteko tropentzako azpiegiturak sortzera. “Migrazioen ikuspegitik –dio Leymairiek– ulertu behar dira AEBek eta zenbait herrialde europarrek egin dituzten urratsak, beldur direlako epidemia latzak mugen gainetik jauzi egingo ote duen: nahiago dute lekuan bertan kontrolatzea ondorioak beren etxeetan jasatea baino”.

1996an William Clinton zelarik lehendakari gaixotasun kutsakorrei buruzko zuzentaraua onartu zuen, bertan ezarriz mundu mailako osasuna AEBentzako segurtasun kontua dela. HIESA zen orduan kezka iturri. Gaur oraindik askoz gehiago dira HIESAk afrikan hiltzen dituenak Ebolak eragindakoak baino. Alta, Ebolak erakutsi duenez epe laburrean herrialde bat paralizatu dezakeela, potentzia handiek esku hartzea erabaki dute.

Ebolaren kontrako borrokaren osagai politikoek ondorioak laster erakutsiko dituzte, migrazio politikan bezala Afrikako herrialdeon eskualde mailako integrazio ahaleginetan. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira



Baztarrikaren elkarrizketa irakurtzen

BERRIA-K aurtengo Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzetan jaso duen murrizketa dela eta zalaparta piztu da euskarazko hedabideetan. Nik ere jarraitu dut eztabaida gertutik. Batzuetan gertuegitik, Patxi Baztarrika hizkuntza politikarako sailburuordeari *Goienak* (2014-10-24) egindako elkarrizketa bezala; lerro artean buru-belarri murgiltzerainoko irakurketa, eta esaldien segidan nire baitan bat-bateko burutazioak idazteraino.

Galdera: “*Ze argazki egiten duzue gaur egungo hedabideen egoerarena?*” (...) Erantzuna: “*Ez dut uste gaur oraindik nahi genukeen sendotasuneko merkatua osatzen dutenik euskarazko hedabideek, eta, bestetik, uste dut, tarte luzea dagoela egiteko euskal biztunek bere egin dituzaten euskarazko hedabideak eta produktuak. Euskarazko hedabideek asmatu egin behar dute beren egitekoan irakurleak edo ikus-entzuleak irabazten*”. Bai, ados, hedabideek asmatu beharko dute, bestela jai. Kontua da nola. Eta bai, luzerako da, baina euskal hiztunetarik zenbatek egin beharko ditu bere hedabideak, ondo dagoela kontsidera dezagun? Bestetik, ez al dago hori oso lotua gizartean euskarak erabileran ematen dituen urratsekin? Nola egin kontsumitzerainoko jauzia, euskaldunek erabileran arazo handiak dituztenean? Bai, hedabideek egin beharko dute bide hori, baina estrategietan bada ordua erronka horri beste era batera heltzeko, besteak beste lan moldeak irauliz. Azken 30 urteetan hedabideek egin dute produktua eta instituzioek –Jaurlaritzak batez ere– diruz lagundu. Hedabideen artean badira bi hanka nagusi, publikoak eta –ikuspegi sozialeko– pribatuak; giltzarri den hirugarren hanka ins-

tituzioena da; eta lagungarri izan daitekeen laugarrena ikerketaren mundua, unibertsitatea. 35 urteren ondoren, ez al da ordua, lau hanka horiek (EITB, Hekimen, Jaurlaritza eta unibertsitateak) mahai berean jarri eta askoz modu iraunkoragoan pentsa dezaten hedabideen kontsumoa handitzeko zeintzuk diren estrategia eta biderik egokienak? Bai, gero erabaki dezala instituzioak, hala behar du eta. Baina lan molde berria indarrean jarriko balitz, ez al luke lagunduko erabakiak hobeto hartzen? Berrikuntzaren gizartean, berriro dezagun behingoz harreman moldea eta aterako dira diseinu berriak. Seguru.

Arazo teknikoez ari da Baztarrika, baina diru-laguntzei dagokienez, arazoa batez ere politikoa da

“(...) Momentu honetan Eusko Jaurlaritza da euskarazko hedabide gehienek babesle nagusia”. EITBri dagokionez bai, baina besteetan ez. Babesle nagusiak langileak dira, beren lan badintza estuekin medioen bizirautea ahalbidetzen dutenak; erosle-kontsumitzailea da; eta publizitatea jartzen duten bezeroak. Elkarrizketan Baztarrikak gogoratzen duenez, Jaurlaritzaren diru-laguntza %20ra hurbiltzen da batez beste. Klabea da hori, baina klabeago beste %80a.

“*Horretarako [irakurleak edo ikus-entzuleak irabazteko], oso kontuan eduki behar dituzte haien gogoapetak eta ikuspuntu ugartasuna*”. Ez ote dugu egiten? Orduan, nola ulertu medio gehienak hainbeste urtez irautea merkatuan? “*Guztietzako produktu erosoa eta benetan*


erakargarriak egiten asmatu behar dute”. Euskaldun guztientzat? Nola ulertu behar da hori? Zein kazetaritza mota eginez lortzen da hori? Orain dauden hedabideek egin behar dute guztientzat edo, daudenak iristen ez badira, berriak sortu behar dira? Komeniko litzateke luze eta argi hitz egitea kontu horiez, eta batez ere lasai, adibidez lehen aipatutako lau hantetako mahaian. *Berria*, *Goiena* eta tokiko guztiak, ARGIA, *Gaur Zortzi (Gara)*, *Ortzadar (Deia)*, *Jakin*, *Elbur-yar*, *Hamaika*, *Bizkaia Irratia*, *Euskal Irratiak*... Norengana ez gara iristen? Desagertutako *Zabalik* harekin (*El Diario Vasco*) iristen ote ginen? Eta *Aldaketa 16*rekin?

“*Guk helburu bat dugu ororen gainetik eta da euskararen erabilera areagotzea etengabe. Hedabideen kasuan horrek esan nahi du kontsumoa* (...) Helburu horri erantzuteko jartzen ditugu irizpideak eta horietan irismenarena da irizpide nagusia”. Argudioak ekimen sozialeko komunikabideentzat balio badu, balioko luke baita ere publikoentzat? 2012an ETB1eko ikusle kuota %2,1ekoa izan zen, hainbat arrazoi medio, 2003an baino hiru aldiz txikiagoa. ETBren aurrekontua horregatik murrizteak baluke logikarik? Ez, horretan ados egongo ginateke guztiok.

Arazo teknikoez ari da Baztarrika sailburua elkarrizketan. Baina diru-laguntzei dagokienez, arazoa batez ere politikoa da, bere poltsak diru gehiago behar duela, eta hori erabaki politikoa da. Hitzarmen politika indarrean jartzea bezain politikoa. Bestela arazoak hor jarraituko du, orain batekin eta hurrengoan bestearekin. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat




Gametxo hotela

Bi lagunentzako
asteburu pasa

Gametxo auzoa
Ibarrangelu BIZKAIA

www.hotelgametxo.com

1



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

2



Eureka! Zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.euskalmuseoa.es

3



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

4



Argia kamiseta

Kamiseta opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2433. Argia)

LAR ZALDIAK

- Regina Tolosa Agirrezabala (Amezketza)

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Gotzon Apaolaza Bernedo (Lasarte-Oria)

PANKREAS ANTZEZLANA - Tartean Teatroa

- Kepa Gorordo Basaras (Durango)
- Iñaki Biain Salaberria (Donostia)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)

SAN TELMO MUSEOA

- Rafael Larrañaga Albizu (Azpeitia)
- Arturo Kanpion Elkartea (Iruñea)
- Josu Martinez Martinez (Bilbo)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)

ERLEA GURE SENDAGILE liburua

- Xalbador Unzueta Mitxelena (Zarautz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia





euskarabildua

AUKERA BERRIAK SAREAN

noiz

azaroak 6 osteguna

non

San Telmo Museoa
(Donostia)

ordua

09:00-13:00 /
15:30-17:30

*Oharra:

Plaza kopurua kontrolatu ahal
izateko, beharrezkoa da aurrez
izena ematea

EGITARAUA

09:00 Aurkezpena: Gipuzkoako Foru Aldundiko, Eusko Jaurlaritzako eta Donostiako Udaleko ordezkariak bertan izango dira

Abiapuntu orokorra: **IKT joera berriak hezkuntzan**

09:15: Hitzaldia: IKaskeTa modu berriei begirada

Maite Goñi - Mondragon Unibertsitatea / Jakintza Ikastola
GALDEREN TXANDA

Ikus-entzunezkoen garrantzia hezkuntzan

09:50: Hitzaldia: El universo transmedia en la educación

Antoni Marín Amatller - Universitat Oberta de Catalunya
GALDEREN TXANDA

IKTak hizkuntza irakaskuntzan

10:20: Mahai ingurua

Erakustaldiak. Ikasi eta irakatsi hizkuntzak ikus-entzunezko baliabideekin

11:00: Hitzaldia: Ikuslang proiektua

Iker Olkoz eta Asier Iturralde - Iametz Interaktiboa

11:15: Hitzaldia: Clip Flair

Mari Luz Guenaga - DeustoTech
GALDEREN TXANDA

11:30: Atsedenaldia

Hezkuntzaren dimentsio berria, Hiri Hezitzailea

12:00: Hitzaldia: Ordizia hiri hezitzailea

Belen Maiza - Ordiziako Udala
GALDEREN TXANDA

12:30: Hitzaldia: Las TIC al servicio de la educación patrimonial en el marco de las Ciudades Educadoras

Dra. Laia Coma - Escuela Universitaria de Hotelería y Turismo. CETT-UB
GALDEREN TXANDA

13:30: Atsedenaldia bazkaltzeko

15:30-17:30: Talde dinamikak (World Café)

- IKTak eta hizkuntzen irakaskuntza

- IKTak eta hiri hezitzailea

3. edizioa:
IKTak jakintzaren
mesedetan

Antolatzaileak

ametzagaiña
taldea

argia

iametza
interaktiboa

info+:

www.euskarabildua.eus

Babesleak



Laguntzaileak

an^{oa}

komunikazio grafika



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea



Deusto

MANAHMANA



ehi^{ge}

gaur



HADE

Euskal Herriko Unibertsitatea



San Telmo Museoa

